

Emakumezkoen
pala txapelketako
finalak bihar



Kirolak >> 13

World Cheese Awards txapelketan
Patxi Amillanoren gaztakurrezko
domina eskuratu du eta **Araña-
Etaio**renak brontzezkoa



Sakanerria >> 5

Gamesako kaleratzeak baliogabe utzi dituzte

Espainiako Lan Zuzendaritzak Gamesako zuzendaritzak aurkeztutako Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE) ontzat jo

zuen 2010eko maiatzeko aurreneko asteen. Altsasuko lantegia itxi eta 150 langileren kaleratzea ekarri zuen

>>8

Ardo Azoka Batuta ezagutarazteko

15 ekintzailek haiek bultzatutako 4 enplegu proiektuak erakutsiko dituzte asteburuan Altsasun

>>7

Mank-ek hondakinen kudeaketarako enplegu tailerra antolatu nahi du >>5

Akabo Inasa

Baikap-en bideragarritasun plana ez da onartu; itxiera dator >>8

Sakanako Plan Estrategikoa ilbeltzean bukatuta >>5



>>9



Herri kirolak, xakea, eta hitzaldia Mank-en kirol asteburuan >>11



Trasteandoren elkartasun kontzertu bikoitza >>14

Erosketa-orgaren irabazlea:

Beatriz Madinabeitia
(Iturmendi)

Gertu
gertu sakana S.C.

659 842 424 / 948 564 595
Pilotajoko zeharbidea 11 - Altsasu
www.gertusakana.com

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



ZORIONAK MIKEL! Zure lankide-en partez espero dugu tortilla patata on bat jatea.



Amaia Lazkoz ZORIONAK xister!! Biandu xamar beya... Izan, Xabat, Pello eta Dulantzen partez muxubek.



Dulantz ZORIONAK ttiku!! Zure anaia Xabat eta Pelloren partez. Gure aldetik ere, mila kilo besarkada zuretzat.



Dulantz Lazkoz Amillano
ZORIONAK Dulantz!! Urte bat ttittu!! Beti bezain irri-partu jarraitu, amabxo eta aitabxoren partez mila kilo muxu.



Dulantz Lazkoz Amillano
"ZORIONAK Dulantz zure lehenengo urtebetetze-an!!! Muxu eta besarkada asko familiaren partez!!". Amakux.



Oihane Erdozia Alberdi
ZORIONAK politta!! Eman pilotari gogor eta liburuerei ere bai!! Zuk ahal duzu hori eta askoz gehiago ere!! Amakux.



Ekhi ZORIONAK zure 10. urtebetetzean. Oso egun polita pasa, muxu haundi bat! Etxekoak.



Ekhi eta Mattin Balda Anso ZORIONAK bikote! Egund politte euki, mila muxu etxekuen partez!



Inma eta Beñat ZORIONAK eta muxu pilo bat etxekoen partetik.



Inma eta Beñat Amonen eta aittonan partetik MILA ZORION!



Izadi ZORIONAK eta muxu haundi bat famili guztiaren partez!! Segi alaitasun horrekin eta egun oso ona pasa!



Haitz Lazkoz Ginea ZORIONAK eta muxu pila bat zure 1. urtebetetzean!! Oso ongi pasa genuen ostegunean merendolan. Zure anaia eta lehengusuen partetik.



Haitz Lazkoz Ginea
ZORIONAK pottolin, ostegunean bete zenuen zure 1. urtea. Muxu haundi bat familia guztiaren partez.



Maitane Lesaga Lizarraga
ZORIONAK etxeko printze-sa!! Aita eta ama eta Dorrauko eta Muniaineko familian partez. Muxu.



Naroa 8 KILO ZORION!!!!
Muxu haundi bat Ainhoaren, gurasoen eta etxeko guztien partez



Ariane eta Amagoia
Zorionak bikote! Eta ongi pasa familiaren partez. Ariane horrela segi eta muxu haundi bat amaren partez.

abenduak

13-19

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Cantos con encanto. Abenduaren 14an, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Trasteando.**

Parkinsonaren aldeko doinuak. Abenduaren 18an, asteazkenean, 18:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **ANAPAREko abesbatza eta Trasteando.**

Zinema

De oxido y hierro. Abenduaren 13an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 15ean, domekan, 20:00etan lortian.

Gravity. Abenduaren 13an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 15ean, domekan, 20:10ean lortian.

Doraemon y Novita Holmes en el misterioso... Abenduaren 15ean, domekan, 17:00etan lortian.

Mendi irteera

Oilo. Abenduaren 15ean, igandean, 7:00etan abiatuko da autobusa herriz herri. **Sakanako Mendizaleak.**

Bardeak. Abenduaren 15ean, igandean, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Txirindula irteerak

Opakuako gaina. Abenduaren 15ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 69 km. **Burundako mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Zigilua, prozesua eta interakzioa. Abenduaren 23ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta, domeketan, 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Itziar Nazabal.**

Zer egiten duzu etxean? Abenduaren 22ra arte, zabalik dagoenetan, Altsasuko lortia kultur guneke ezkaratzean.

Jaiotzak. Ilbeltzaren 12ra arte, astelehenean larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domekan 13:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era Olaztin, Sakanako Belenzaleen egoztan.

Agiri despupulatuko aztarnak. Abenduaren 16tik ilbeltzaren 6ra, goiz eta arratsalde, Uharte Arakilgo udaletxeko ezkaratzean.

Hitzaldiak

Nire seme/alabak kirola egitea nahi dut, baina... zenbat? nola? zertarako? Abenduaren 13an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. Izena

emateko deitu Mank-era: 948 46 48 66 edo idatzi kirolak@sakana-mank.com.

Tailerrak

Komiki tailerra. Abenduaren 15ean, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **+12 urte.**

Bestelakoak

El banquete. Liburu aurkezpena. Abenduaren 13an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Zubiondo elkartea.**

Ardo Azoka. Abenduaren 13an, ostiralean, 19:00etatik aurrera; larunbatean, 12:00etatik 14:30era eta 19:00etatik aurrera eta, igandean, 12:00etatik 14:30era Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Batuta.

Scraperoen urte akaberako festa. Abenduaren 14an, larunbatean, 9:30etik 20:30era Altsasuko II Padrino jatetxean.

Joko eta jostailuen trukaketa. Abenduaren 14an, larunbatean, 11:00etatik 13:00etara Irurtzungo

plazako arkupeetan. Ostiralera arte eraman daitezke eskolara.

Guaixe.net. Web orri berriaren aurkezpena. Abenduaren 16an, astelehenean, 18:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean.

Parlamentari sozialisten jendaurreko bulegoa. Abenduaren 16an, astelehenean, 19:00etatik aurrera Altsasuko PSNren egoztan.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 13an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Abenduaren 16an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak, Batuta eta Ardo Azoka, Altsasuko scrap topaketa...

Esataria: Alfredo

GUaiXE

Sakanaz sarean

Guaixe-k web berria mustuko du

Astelehenean, 18:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean egingen da aurkezpena.
Sakandar guztiak gonbidatuak daude

Bierrik fundazioak, Sakanako euskarazko komunikabideak kudeatzen dituen fundazioak, web atari berria mustuko du astelehenean. Sakanaz sarean aritzeko gune berria izanen da. 2007. urtetik dago Guaixe Interneten Sakanako informazioa zabaltzen. Baina ordutik informazioa kontsumitzeko joerak aldatzen ari direla ikusita eta herritarren beharrei erantzuteko sortu du Bierrik-ek web gunea.

www.guaixe.net-en ezaugarri nabarmenenak bi dira. Batetik, Sakanako talde eragile eta herritarrez osatutako Komunitatea izanen du (herritarren parte hartzea eta inplikazioa sustatuko du, haiei web orrian protagonismoa emanez). Eta, bestetik, informazioa eta gaurkotasuna kudeatzeko tresna berriak izango ditu: argazki albisteak, argazki galeriak, bideoak, zuzenekoak. Aldi berean, zerbitzu eta

elementu berriak eskainiko ditu web gune berriak: zorrion agurrak, ezkontzak, jaiotzak, gida komertziala... Eta dena mugikorretarako egokitua. Argibide guztiak astelehenean emanen ditugu Iortia kultur gunean.

Elkarlanean

Proiektu horri ilusioz ekin dio fundazioak. Horretarako Tokikom-en, euskarazko tokiko hedabideen elkartearen

laguntza izan du. Euskal Herriko euskarazko beste komunikabide batzuekin batera, punta puntako teknologia eskaintzen duen plataforma jarri dute martxan. Motor nagusia eta software librea besteekin konpartituko du, beraz. Hala, tokiko hedabideen sektorea berritzeko urratsa eman dute, bakarka nekez eskura zitzaken baliabideak Iortuz horrela.

Eragina

Web orrian azaroan, **36.003 bisita**, egunero 1.000 baino gehiago. @guaixe **908 jarraitzaile** Twitterren. Facebook.com/Guaixe. astekaria **1.155 lagun**

**Atari berriaren
aurkezpena
abenduaren 16an,
18:30ean Iortian**

www.guaixe.net
Sakanaz sarean



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

Norantz abiatu?

Topikoak dio atzera eta aurrera begiratzeko garaia dugula urte bukaera. Atzera balantzea egiteko eta aurrera aldatu beharreko akterabakitzeko. Urtea ez da erraza izan. Hamarkadetan lortutako eskubideak abiadura izugarrian galtzen ari gara eta beldurra nagusitzen ari da gizartean. Ez da, ez, ona balantzea.

Pentsatu behar dugu zer aldatu dezakegun, geuk, krisi honi aurre egiteko. Krisia ez da bakarrik ekonomikoa eta gaur denok dakiguz garelako 2007 arte bizi izan genuen egoerara itzuliko. Norantz jo atzera itzultzea posible ez bada? Badaude gure artean errealitate minoritarioak, bide berri bat proposatzen dutenak:

ekonomia sozial eta solidarioarena. Lan kooperatiboa, merkataritza justua, kontsumo arduratsua, finantza etikoak. Denok hartu dezakegu parte, modu berdinetan, ekonomia horretan, bizi dugun kapitalismo bortitzari aurre egin ahal izateko. Datoren egunak, kontsumo egunak ere badira. Pentsa dezagun erosten

dugun guztia behar dugun, zer baldintzetan ekoiztu den, parte hartu nahi dugun erositako horrek ordezkatzeko duen ekonomia motan. Guztion erabakiak esango du noren lanak izango duen arrakasta eta nork egingo duen aurrera: Amancio Ortegak edo Cadena textil justa y solidarioak, Banco Santanderrek edo

Fiarek, Perunekoizten duen multinazional handiak edo Erriberako nekazariak. Eta ez bakarrik ekonomian, borrokatu beharko dugu baita benetako demokrazian eta elkartasunean oinarritzen den gizarte bat nahi badugu. Ez da erreza aurrean dugun erronka, baina saiatu gabe ezin da inoiz ezer lortu.

barrutik kanpora

Euskara irakaskuntzan, aurrera!

Euskaraz bizi nahi dut, Euskarak 365 egun, # mundiala... ekimenek euskaraz bizi duen egokaren isla dira: gizartearen bultzada behar du irauteko. Gainera, funtsezko zenbait eskubide aldarrikatu behar dira oraindik Nafarroan, aitortu gabeak baititu. Euskaraz bizi eta ikasteko eskubidea errebindikatuko da Tafallan, abenduaren 14an.

Euskarak, aurrerapauso galantak emanak dituela ukatzerik ez

egon arren, halakoak behar beharrezkoak ditu oraindik, zoritxarrez. Ala onez? Lozorroan den izkira ur korronteak eramatzen duela erakusten du erdal esaerak. Konfiantza gehiegizkoak, sarri, istripuak, ezbeharrak sortzen dituela, alegia. Egoera horretan ote gaude azken boladan euskaldun eta euskaltzaleok? Iratzarri eta begiak irekitzeko premian? Gu, lo gozoan; etsaiak ez, ordea. Aukerarik one-

na baliatzeko prest, beti.

Eta hemen datozkigu berriro. Inolako disimulurik gabe, erasora. Bertakoak nahiz kanpokoak. Baliabide guztiak erabiltzeko prest. Erasoko jokoan.

Azkena, bortitza. Zer egiteko gai diren garbi erakusten duena. Joko zikinean oinarritua, irakasle zein gainontzeko langileak, ikasleak eta gurasoak jomuga dituen. Gizarte osoa, oro har, gizartearen aukeratzeko

ko eskubidearen kontra ari baitira, askatasunaren kontra, finean. Gurasoak izutzea helburu duen kanpaina mediatiko onartezina. Helburua, bakarra: gurasoak kikiltzea, gurasoen artean izua sortzea, D ereduan matrikula ez ditzaten seme-alabak. Arrazoi pedagogiko guztiek eredu hau babesten dutela? Beraiei bost.

Erantzunak neurrikoa behar du izan: irmoa eta garbia. Ikus-

garria. Abenduaren 18an Iruñean entzungo dena: D ereduaren aurrera!



Aizpea euskara taldea

hara zer dien

Josefina Arreguiren eguneko zentroa

Josefina Arregui eguneko zentro psikogeriatrikoa gaixoak eguneko zentro sozio-sanitarioa da (ordutegia: 9:15 - 17:30), demen-tziak eta beste eritasun psikiatrikoak dituzten pertsonen tratamenduan espezializatua.

Gure helburua da gaixoen eta haien familien bizi kalitatea hobetzea. Plan oso bat eskaintzen dugu, honako hauek osatua:

- Terapiak plana, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak.
- Laguntzeko plana.
- Familietan eskuz hartzeko plana.

Eguneko zentroan arlo bateko eta besteko adituek hartzen dute parte: mediku espezialistak (psikiatra eta geriatrak), neuropsikologoak, okupazio-terapeutak, gizarte langileak, fisioterapeutas, erizainak, erizaintzako laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak.

Eriak ikuspegi farmakologikoz tratatzen dira, ez-farmakologikoz, alegia. Tratamendu ez-farmakologikoa endekatze funtzionala geldiarazi nahi du, gaixoaren zainketan egunero sortzen

diren problemak saihesteko. Horretarako jarduerak egokituak antolatzen dira, talde bakoitzak dituen ezaugarrien arabera. Talde horiek osatzen dira erriaren balorazio neuropsikologikoa eta funtzionala egin ondoren.

Ondoko terapiak ditugu, besteak beste: psikoestimulazioa, jolasen bidezko terapia, komunikazio jarduerak, psikomotrizitatea, oroitzeko ariketak, arte-terapia, terapia zakurrekin eta fisioterapia plana bakoitzarendako.

Plan integrala eskaintzen da

familien beharrak ase, zalantzak argitu eta zainketa problemak saihesteko. Baita ere etxeko eremuan, erien eta haien familien bizi kalitatea hobetzeko.

Familiendako eta zaintzaileen dako zabalik dago zentroa. Zenbait jardueratan har dezakete parte, hala nola hitzaldi, ikastaro monografiko, zentroak antolatutako ekitaldi eta autolaguntzako taldeetan.

Josefina Arregui

gora/behera

▲ Ekintzaileak

Ibarrean badaude eta haien proiektuak ezagutaraziko dituzte asteburuan.

▼ Berandu

Lanpostuak ez daudenean jaso ditugu bi berri "on".

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Garazi Gartzia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburordetza

HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLORAKO LAGUNTZAK: Uharte Arakilgo Udalak (11.073,75 euro) eta Altsasuko Udalak (16.678,96 euro, kudeaketa eta jangelara-

ko) Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jaso dituzte. Haiekin kudeaketa eta jangela, baita behar bereziak estaltzera bideratuko dira.

sakanerria >>

SAKANA

Mank-ek hondakinen kudeaketa integraleko enplegu tailerra antolatu nahi du

Enpleguak sortzeko sektore bat da eta, horregatik, Nafarroako Gobernuari finantzazioa eskatu dio

Mank-ek eta Etxarri Aranazko Kerabi gestión medioambiental SL enpresak Hiri eta industria hondakinen kudeaketa integrala izeneko enplegu tailerra sustatu dute. Maiatzean hasia nahi luke eta, horretarako, beharrezkoa den diru-laguntza eskatu diote Nafarroako Gobernuari.

Mank-eko buru Aitor Karasatorrek azaldu digunez, "hondakin bilketa sistema berria ezarria duten herrietan lortzen ari den birziklatze tasa eta kalitatea kontuan izanda, zaborren kudeaketaren inguruko enpleguak sortzeko aukerak zabaldu nahi ditugu". Helburua, beti ere, Hondakinen kudeaketa egokia egiteko eta hondakinen inguruan gizartearen kontzientziatzea lantzeko gaitasunak hartzea litzateke. Nafarroan etorkizunean egin



Konposta egiteko ilara luzeak daude Arbizuko hondakindegian.

beharko liratekeen enplegu tailerren inguruko ikerketan Sakanan aurreikusitako tailerren modukoak jasoak daude.

Tailerrean, prestakuntza eta praktika tartekatuz, 15 pertsona trebatuko lirateke. 6 hilabeteko iraupena luke tailerrak. Aralarako Mikel Donea institutuan egingen litzate-

ke tailerra, azpiegitura egokiak izateaz aparte, zentroko Agenda 21 proiektuan hondakinen inguruan egiten den lanketa indartzeko aukera ikusi baitute bai sustatzaileek bai institutuko arduradunek. Tailerra despeditu ondoren 3 pertsona kontratatuko konpromisoa hartu dute sustatzaileek.

Konpostatze planta

Mank aztertzen ari da Arbizuko hondakindegian konpostatze planta egitea ibarrean bertan biltzen den materia organikoa Sakanan bertan tratatzeko, beti ere, konpostatze eginez. Hondakin bilketa sistema berria emaitza onak ematen ari da, aurreikuspenak betez. Esa-

44 lanpostu

Horiek dira Sakanan ekonomia berdean, bereziki hondakinen kudeaketan aritzen diren Sakanako lau enpresek sortutako lanpostuak. Ibarreko enpleguaren %0,7. Gainera, hainbat enpresen bigarren edo hirugarren mailako jarduerak hondakinengarraioa. Nafarroako Gobernuaren arora hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak kudeatzeko 13 kudeatzaile baimendu daude Sakanan. Baita hondakinak garraiatzeko 40 garraiolari baimendu ere. Karasatorrek uste du arlo horretan enplegu gehiago sortzeko ahalmena dagoela Sakanan.

terako, auzo-konpost etxoletan materia asko pilatzen ari dela eta haietako zati bat Arbizuko hondakindegira eramaten ari da Mank, han konpost bihurtzeko.

Mank-en asmoa litzateke konpostatze planta tailerrean parte hartuko duten pertsonekin batera lantzea. Han ere lan aukerak sortzeko aukera ikusten da.



Sakanako plan estrategikoa ilbeltzean bukatuko da

Sakanako Garapen Agentziak, Cederna-Garalurrek eta Sakantzen Sareak sustatuta sortu den Sakanako Sozio-Ekonomia Behatokia ari da plana egiten. Sakanan enplegua sortzea da helburua

Asteartean bilduzen industria lantaldea, atzo elkartu zen lehen sektorekoa. Heldu den astean turismo arlokoa eta ilbeltzean energia lan

taldea bilduko da. Lau batzorde horietan Sakanak arlo bakoitzean gaur egun zein egoera duen aztertuko eta hortik abiatuta enplegua sortzea da xedea, jasangarritasun sozialean, ekonomikoan eta ingurumenekoan oinarrituta. Lantaldeek irailerako arloko diagnostia egin zuten eta sakandarren

ekarpenekin aberastu zuten.

Ekintza zehatzak aurreikusi dira arlo bakoitzean eta guztiak Sakanarako plan estrategikoan jasoko dira. 10 urterako plangintza zehazten ari dira. Horregatik, dauden bitarteko eta baliabideak kontuan hartuta lehentasunak eta epeak jarriko zaizkie ekintza horiei.



Industria batzordeko kideetako batzuk astearteko bileran.



Ibarreko bi gazta munduko onenen artean

Patxi Amillano artzaina altsasuarraren Larrezabal gaztak urrezko domina lortu du babes-tutako jatorri izendapena mailan. Arbizuko Araña-Etaiok ekoiztutako Juananeko Borda gaztak, berriz, maila berean brontzezko domina eskuratu du. Bi sari horiek World Cheese Awards txapelketan eskuratu dituzte bi artzainek.

Birminghamen jokatu zen azaroaren 27an txapelketa, munduan itzal gehien duen gazta lehiaketa. 30 herrialdeetako 2.744 gazta aurkeztu ziren lehiaketara. 255 kideko epaimahaia izan zen eta Idiazabal jatorri izendapeneko 25 gaztandegik 32 domina eskuratu zituzten, tartean sakandarrenak. Bertan egiten den gaztaren kalitatearen adierazle.



Amillanoren gaztak urrezko domina eskuratu du.

Lizarran saria

San Andres feriaren barruan, abenduaren 1ean, Lizarran Urbasa-Andiako gazten lehiaketa jokatu zen. Eulateko Felipe Agirrek eskuratu zuen lehen saria. Hirugarrena Unanura ekarri zuen Ibar-

borda gaztandegiko Migel Anjel Garzia Guerrerok. Dozena bat gaztandegik parte hartu zuten, besteak beste, Arza-Zeberio (Uharte Arakil), Balda-Artola (Unanu), Sarabe (Urdiain) eta Patxi Amillano (Altsasu).



Lehen sektorea trebatzen

Abenduaren 5ean, Belardiren bitartez, Iparraldeko Biharko Lurra elkarreko ordezkariak Sakanako Mankomunitatearen egoitzan izan ziren. Larreen kudeaketa egokian sakontzeko eta animalien elikaduraren inguruko ikastaroan parte hartu zuten Sakanako hainbat abeltzainek. Lastailan, bestalde, Asturiasko aditu batek larreen kudeaketa egokira-

ko ikastaroa eskaini zuen ere.

Joan den urteko lastailaren 5ean hasitako bidearen segida izan dira bi ikastaro horiek. Sakanako Garapen Agentziak antolaturik, bailarako elikadura eta nekazaritzaren arloko hainbat eragile, Orduñan lehen sektorearen inguruan azken urte hauetan egiten ari diren lanketa ezagutzera joan ziren.



Abeltzainak pasa den asteeko prestakuntza saioan. NEREA MAZKIARAN

» Lakuntza

Plazako lanak emanak

Enpresak lanak San Saastin festen ondoren hasi eta agorrilerako despeditu beharko ditu

Tex Obras y Servicios SL enpresak egiten ditu Lakuntzako plazako lanak eta haien truke 240.732,81 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Lan horiekin, eliza eta iturria bitartean, plaza eta ondoko kaleak bat egiten duten oinezkoendako espazioa sortuko da. Hala ere, auzokideek euren ibilgailuekin sartzeko aukera izanen dute puntualki. Plaza gurutzatzen duen Mikel Arregi kalea tarte horretan jaso egiten da, ibilgailuek abiadura mantsotu dezaten. Plazako zola-



Udalak aurki batzarra deituko du zuhaitzen inguruko irtenbideaz aritzeko.

dura berritzearekin batera, sareak berrituko dira. Gainera, argiteria publikoko, telefono eta argindar sareak lurperatuko dituzte.

Teknikariek udalari jakinarazi diotenez, arbolak gaixo daude. Zain handiak dituzte eta haiek plazako zorua hautsi dute.

» Uhartea Arakil

Gozogile eta gozozaleen biltzarra



Epaipeak Barbarin, Lopez de Sosoaga, Lanchares eta Castillejo izan ziren.

Donibane elkarrekin ostiralean hartu zuen biltzar hori. Urtero antolatzen duen gozogintza lehiaketak parte-hartzaileez aparte, uhartear ugari erakarri zituen. Giro ederra izan zen arratsaldean eta lehiaketara aurkeztutako tartak cavaz lagunduta dastatu zituzten.

Aurreneko saria Izaskun Gorritik eskuratu zuen txokolatzeko tarta batekin (sukaldeko batera). Eduardo Gonzalezek limoi tarta aurkeztu zuen eta bigarren sailkatu zen (bidai maleta txikia). Puntu berdinketa izan zen eta hirugarren saria Presen Gorritik

Gainontzeko parte-hartzaileak

Rosa M^a Martiarena, Jose Antonio Uhartea, Blanca Arrizabalaga, Maritxu Arraiza, Lourdes Etxarri, Domi Berastegi, Antonio Urroz, Paki Sanchez, Elena Mauleon, Juan Mari Mujika, Juan Moreno, Trini Juango, Lucia Lacalle, Cris Iturmendi, Eusebio Martin eta Esther Mendinueta.

eta Maribi Lizarragak eskuratu zuten (19 piezako baxera). Sariak Rural Kutzak eman zituen. Tartagileak 20 izan ziren. Ikuste hutsarekin maila handia zegoela adierazi zuen epaimahaiak. +www.guaixe.net

» Ziordia

Geroa Baik autobiaz aparteko Arabarako lotura eskatu du

Nafarroako Gobernuak Ziordiko Udalarekin konponbidea adostu eta gune gatazkatsu bati konponbidea ematea proposatu du

Autobiak eta autopistak egiten diren bakoitzean haiei lotutako bigarren mailako errepide sarea egiten da. Hala egin da Sakanan. Ziordian izan ezik. Nafarroa eta

Araba arteko errepide lotura bakarra A-1 autobia da eta handik ezin dira nekazaritza-ibilgailuak edo txirrindulariak ibili. Biherrialdeak lotzen dituen pista bat badago, baina Nafarroako aldean asfaltatu gabe dago. Horregatik ez dute inguruetak herriarrek hura era-

biltzen, ezta txirrindulariek ere. Azken horiek autobiatik joaten dira, debekua saltatuz eta arriskuan jarri.

Geroa Baik Sustapen Departamentuari moziobidez eskaera luzatu dio "A-1 autobia ez den Nafarroa eta Araba arteko pasatzeko moduko lotura" egin dezala. Trafikoari dagokionean mugaldea "benetako gune gatazkatsu eta arriskutsua bihurtu da", koalizioaren iritziz. Departamentuaren eta Ziordiko Udalaren artean konponbidea adosteko eta bien artean lanak ordaintzeko eskatu du koalizioak.

Manu Aierdi parlamentariak gogora ekarri du 2011ko udan Sakana eta Lautadako txirrindulariek lotura falta horretaz eta sortzen zuen arriskuaz gaztigatu zutela. "Orduko Guardia Zibilaren txosten batek arazo horren berri eman zuen eta autobiaaren paralelo den pista bat asfaltatzeko proposamena egin zuen". Txosten horretan oinarrituta Ziordiko Udalak 2011ko lastailean Sustapen Departamentuari arazoa konponitzeko eskaera egin zion, baina Iruñean ez diote kasurik egin.

» MOTZEAN

Euskara egunero erabiltzeko deia

Horixe egiten dute hainbat irurtzundarrek. Euskararen eguna zela eta Euskaltzaleen Topaguneak Euskarak 365 egun kanpaina egin zuen. Aizpea euskara taldeak Irurtzungo taldeak lelo horren inguruan bildu eta argazki bana egin zien. Argazki guztiekin mosaikoa ondu du eta kartel moduan herriko eraikin esanguratsuetan jarriko ditu: elkarte, eskola, osasun etxe, udaletxe, baje-rak... Irurtzun Euskaraz blogean ere bideoa jarriko dute. Irurtzundarrek irurtzundarrei egindako gonbitea, egun bat bera ere euskara erabili gabe ez pasatzea.

Trukea, jokorako bidea

Larunbatean, 11:00etatik 13:00etara Irurtzungo plazako arkupeetan joko eta jostailuen trukaketa

Makina bat joko eta jostailu izanen dira aukeran bihar Irurtzungo plazan. Aste guztian Atakondoa ikastetxe publikoan ikasleek eraman-dako jokoak bildu dituzte, goizean, sartzerakoan. Bat edo sei eraman, jostailuak eman dituzten ikasleek txartel bana jaso dute. Eta hura erakutsi beharko dute bihar beste joko edo jostailu bat eskuratu nahi badute. Baina zera berri batekin etxera joan aurretik antolatu diren joko kooperatiboetan eta tradizioletan jolastu edo haiek ezagutzeko aukera izanen dute txikiak.

Atakondoa eskolako guraso elkarteak, Itxipuru Taldeak, Immigrazio Zerbitzuak eta Irurtzungo eskualdeko Gizarte Zerbitzuek antolatu dute ekimena. Jostailuak izateko zailtasunak dituzten umeei haiek izateko aukera eman nahi diete. Horretaz aparte, soberan geratzen diren jostailuak haurren esparruan lan egiten duen erakunde bati emanen dizkiote.

Scaperoen urte akaberako festa Altsasun

Bihar, 9:30etik 20:30era Altsasuko II Padrino jatetxean Euskal Herriko 30 artisaun bilduko dira

Scrapa egiten dutenak dira scaperoak. Hau da, oroitzapenak biltzeko albumak, postalak eta bestelakoak personalizatzen aritzen direnak dira scaperoak. Haien jarduna denbora pasa moduan hartzen dute, oroitzapenak biltzeko modu gisa. Euskal Herrian dauden scaperoak Facebook bidez elkar ezagutzen hasi ziren eta horrela sortu da biharko topaketa. Haiekin harremanetan jartzeko croppnavarraeskadi@hotmail.com postara zuzendu zaitezke. Zaletasun hori ezagutu nahi dutenak Altsasutik pasatzera gonbidatu dituzte.

Gidoirik gabeko herri izenak

Euskaltzaindiak aspaldi ebatzia zuen Uhartea Arakil eta Etxarri Aranatz herri

izenak gidoirik gabe idatzi behar zirela. Bai Uhartea Arakilgo bai Etxarri Aranatzko udalek Nafarroako Gobernuari Euskaltzaindiarenerabakia bere egitea eskatu zioten. 2013ko azaroaren 20an Euskaltzaindiarenerabakia bere egitea erabaki zuen Nafarroako Gobernuak eta Sakanako bi herri horien izen ofizialak gidoirik gabe izatea onartu zuen.

Forjas Brun saritua

Arbaso, Euskal Herriko artisautza tradizionala sustatzeko elkarrekin izurdiagarrek urteetan artisautzaren defentsan egindako lana aitortuz Artetsu saria eman zien. Euskal Herri osoan barna artisaunen lan ona zabaltzeagatik ere saritu zituzten Brundarrak. Durangon izan zen sari ematea abenduaren 6an, Arbasok merkatu plazan antolatutako Euskal Dendaren zabaltzearekin batera. Forjariak Izurdiagan duela urte bat Forjaren Interpretazio Gunea zabaldu zuten. Mila bisita baino gehiago izan dituzte urte batean. 40 ikaslek baino gehiagok ikasi dute forjatzen eta 7 hilabetetan 16 erakustaldi baino gehiago egin dituzte Bruneko forjariak. Eta hori guztia ospatzeko forjatutako ezkutu baten zozketa egindute. Horretarako haien Facebook orrian gogoko botoiari sakatu, web orria aholkatu edo handagoen dokumentua Facebook bidez zabaldu behar da.

AVTk Barandallaren aske geratzea baliogabetzea eskatu du

Asociación Víctimas del Terrorismo (AVT) Espainiako Auzitegi Nazionalen 197/2006 doktrina ezarriaz zuten ETako hamar kideren espetxetik ateratzea baliogabe jotzea eskatu du, tartean Bautista Barandalla Iriarte etxarriarrarena. AVT auzi horietan herri akusazio gisa aurkeztuta zegoen eta argudiatu du jatorrizko jarduketak helarazi ez zaizkiola.

Cabacasen inguruko pintada EA Jren egoitzan

Joan den urtean Ertzaintzak botatako gomazko pilota baten kolpearen ondorioz hil zen Iñigo Cabacas bilbotarra. Eusko Jaurlaritzak PSEren esku zegoen orduan eta auzi ikerketan hainbat gora behera izan ziren. Hiru agentek esan zuten gau hartan bota zutela pilotak, gainontzekoek ez zutela bota edo ez zuten deklaratu eta auzi bidea laburra izan zen, nahiz eta gero eskaera berriak egin diren. Gaztearen heriotzaren egunean Bilboko segurtasun dispositiboko parteen Ertzaintzako burua EA Ekipolizia zuzentzeko aukeratu berri du EAJK. Altsasuko Ernain uste dute erabaki horrek Cabacasen senide eta lagunei "errespetu falta" adierazten diela, "daraman umiliazio eta samin guztiarekin. Cabacasen memoria eta duintasuna hil dutela irmoki salatu nahi dugu". EA Jren egoitzan hildakorenen irudia margotuta agertu da, "zuek hil duzue" testuarekin batera.

GANUZA
SUKALDEAK
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuza@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

SAKANA

Batuta: 15 ekintzaile, 4 proiektu

Haien berri eman eta finantzabideak lortzeko Ardo Azoka antolatu dute astebururako Altsasuko Gure Etxean. Ibarreko ekintzaileen, enpresarien eta sakandarren topaleku izatea nahi dute

Batuta Altsasuko bulegotik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Mondragon Unibertsitatearen laguntzarekin aurrera aterako ekimena da; SNEINN (Sakana Nafarroa Ekintzaile eta Berrikuntza) programaren proiektu pilotua da. Eginez ikasi metodologia erabiliz lan aukera berriak garatzen lan egiten dute, autoenplegua errazteko eta jarrera eta mentalitate ekintzailea sustatzen duena. Enpresa proiektuak garatzeko prestatu nahi dituzte parte hartzaileak, Sakanako ekonomia dinamizatu eta ibarrean ekintzailetasunaren bitartez lanpostuak sor ditzaten.

Elkarrekin

Proiektuak eta enpresak ari dira aurrera ateratzen, horregatik, batzuetan baita larunbatetan bil-

Harremanetarako

www.batuta.eu
@BATUTASAKANA
facebook.com/batutasakana
batuta.sakana@gmail.com

du izan dira Batutakoak. "Behar adina ordu sartzen ditugu, batzuetan goizez biltzearekin nahikoa da. Besteetan goiz eta arratsaldez" argitu du Asierrek **Beleixe Irratian (FM 107,3)**. Izan ere, batzuetan 15ak biltzen dira, besteetan lau lan taldeetako kideak soilik.

Ilbelta akaberarekin batera ikasketa prozesua despeditzen da. Batutak sare bat sortu nahi du, ekintzaileak elkar ezagutzeko. Proiektuak garatzen ari direnak edo ideia garatzeko beldur direnei babes emateko. "Jarrera ekintzailearen bidez, lana sortzea da helburua. Talde lana sustatzea, proiektu berriak sortzen jarraitzea, guztia Sakanako ekonomia pixka bat dinamizatzeko".

+www.guaixe.net



Batuta ekimeneko kideetako batzuk, ardo azokaren aurkezpenan.

Lau proiektu

Sakana Web. Ibarreko aktibitate guztia biltzen duen plataforma bat osatzea lortu nahi da. Ibarreko erakusle moduko batsortzea. Sakandarrek ibarrean bertan dutena ezagutzeko modu bat. Kanpotarrek ere Sakanak eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko modua izanzen litzateke ere. Ibarrean dauden komertzioak, produktuak, zerbitzuak, aktibitateak, agenda... dena webgunebatean biltzea. Zerbitzuak eta produktuak erosteko aukera emanen du, edozein momentutan, edozein tokitik. Web progresibokigaratukoda. Martxorak martxan egotea aurreikusi dute.

Urrekin egindako olio. Ibarrean ustiatu gabeko baliabide asko daude, horietako bat urrak dira. Lehengai ugari horri balioa emateko modua haiekin olio ekoiztea da, kalitatezko produktu bat egiteko. Lehen presiotik ateratako olio litzateke, ezer gehiago

gehitu gabe. Ur-olioa kosmetikan maila altuko osagai gisa erabili daiteke. Onura asko ditu, hidratatzailea eta arina da. Elikagai gisa, gordinean erabilia, gourmet produktua da, urrek berezko usain eta zaporea baitute. Lehen probak egiten ari dira dagoeneko.

Energia eraginkortasunari buruzko aholkularitza. Etxebizitzaren zaharberitze proiektuetan energia aurrerzteko laguntza ematea da helburua. Aurrezpenaz aparte, Europako energia eraginkortasun zuzentarauak gehitzen zaizkio, arlo horretan zenbait baldintza bete behar direlako.

Energetikoki eraginkorraden zaharberitze bat egiteko eraikinaren itxura termikoa hobetu behar da. Gainera, energia eraginkortasunaren kinerlazioan tutako zerbitzu anitzak eskaini ditzakete: aholkularitza eta ikuskaritza energetikoa, lizentzien kudeaketa, zaharberitze etarako laguntzak eta energia-txosten eta ziurtagiriak.

Birziklapen tailerra. Gizarteko kontsumo ohiturak aldatu behar direla pentsamendutik abiatutako ideia da. Birziklatzea, berrera-bilera eta materia berrien kontsumoa murriztea ditu oinarri. Pertsonak lan munduan txertatzeko bidea ere izan nahi du. Baita talde lanaren sustapena.

Hiru alorretan lan egiten du. Aurrena, lehengaien (egurra, burdina, plastikoak...) birziklapena, haiekin produktu berriak diseinatu eta sortzeko, esaterako, altzariak. Sormena, diseinua eta berrikuntza sustatzeko bidea emanen du horrek. Bigarrenik, etxeko tresna edo altzarien konponketa izanen da (ez dute aukera nagusia izatea nahi). Azkenik, nork bere altzariak konpontzeko eta teknika berriak ikasteko ikastaroak edo kafe-tailerrak eskainiko dira. Bezeroari lokala eta lan tresnak uztea berak berea konpon dezan eta laguntza behar izanez gero laguntza eskaintzeko aukera ere aurreikusi dute.

Ardo azoka

Batutaren bosgarren proiektua izan daitekeena astebururako antolatu duten Ardo Azoka izanen da. "Gu nor garen eta gure proiektuak jakiteko aitzaki bat da Ardo Azoka. Elkarlana sortzeko bitarteko bat" azaldu du Davidek Beleixe Irratian (FM 107,3).

Batutako kideek euren prestakuntzako gastuak ordaintzeko finantzazio behar dutenez, Ardo Azokan antolatutako pintxopotea horretara bideratuko dute. Lau egitasmo berriren inguruko azalpenak entzuteko aukera izanen da. Elkartrakerako espazioa izan nahi du Ardo Azokak. Esperientzia trakerako gunea eta elkarlanaren sustapenerako bidea. Ekintzaileak, enpresariak, lana martxan dutenak ere joan daitezke (aholkuak emateko, ekintzaileak ezagutzeko) eta aholkuak eman ditzaketan guztiak joatera gonbidatu dituzte. Jakina, gonbitea sakandar guztiei luzatu diete.

Egitaraua

>> Abenduak 13, ostirala
19:00etan Jaiaren mustutzea.

20:00etan Harrera, dastatzea* eta Batutaren sustapena, trikitilariak girotuta.

21:00etan Batuta jaiaren aurkezpen ofiziala, proiektuen azalpen sarrera.

21:15ean Dastatzea eta Batuta nahiz proiektuen sustapena.

>> Abenduak 14, larunbata
12:00etan Jaiaren hasiera, dastatzea* eta Batutaren sustapena, txistulariak girotuta.

14:30ean Egurdiko ekitaldiaren akabera.

19:00etan Arratsaldeko ekitaldiaren hasiera. Dastatzea* eta Batutaren sustapena.

19:30ean Ardo dastatzea. Izena emateko: ardoenea@yahoo.es (15 plaza, 10 euro).

20:00etan Ekintzaileen azalpenak.

23:00etan Akabera.

>> Abenduak 15, igandea
12:00etan Jaiaren hasiera, dastatzea* eta Batutaren sustapena.

14:30ean Batuta jaiaren akabera.

*Katealde pateak; Mari Nati fruta-denda; Amaia eta Portuko ogia; Lizarraga arrautzak; Larrezabal eta Sarabe gaztak; Laket artizanok, Aldasoro eta Galartza harategietako produktuak.

BILTOKI
TABERNA • JATETKEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astelehenerdik ostiralera
**Eguneko menua
8,25€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

nereacnoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu
(Nafarroako Unibertsitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

**Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)**

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisaunak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763



Non erabili

IRUBIDE JATETXEA**ALTSASU**

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA**ALTSASU**

%30eko deskontua Ray Ban eta Oakley betaurrekoetan.

NUEVA IMAGEN**ALTSASU**

%10eko deskontua edozein zerbitzutan.

ARRUAZUKO OSTATUA**ARRUAZU**

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE**ALTSASU**

% 20ko deskontua txartelarekin (eskaintza berezietan izan ezik).

MARIA LUISA**ALTSASU**

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA**LAKUNTZA**

30 €tik gora, maskarilarekin larruzaleko masajea. 50 €tik gora, anpoila hidratatzaile bat.

MARTXUETA**IRURTZUN**

% 5eko irakurketako liburutetan.

MENDILORE**BAKAIKU**

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, % 5ko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA**ALTSASU**

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA**ALTSASU**

Gabonetan %10eko deskontua osagarrietan.

www.guaixe.net-en
zerrenda osoa ikusgai

SAKANA

Gamesako itxiera eta 150 kaleratzeak baliogabeak dira

Epaia aitortzen du negoziazioa Nafarroan egin behar zela eta ez Madril. Eta gaineratzen du Lan Ministerioak esku hartu beharrean Nafarroako Gobernuak hartu behar zuela esku auzian

Espainiako Lan Zuzendaritzak Gamesako zuzendaritzak aurkeztutako Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE) ontzat jo zuen 2010eko maiatzeko aurreneko astean. Erabaki horrek Altsasuko lantegia itxi eta 150 langileen kaleratzea ekarri zuen (71 beste lantegietan birkokatu zituzten). Enpresa batzordean gehiengoa zuen ELAk erabakiaren kontra salaketa jarri zuen eta Madrilgo Auzitegi Nagusiak sindikatuari arrazoi eman dio eta akordioa baliogabe utzi du.

Gamesak negoziazioa Madrilera eraman zuen, Altsasukoaz aparte A Coruña, Burgos, Zaragoza eta



Gamesan aritutako langileak eta ELAko ordezkariak. UTZITAKOIA

Valladolideko lantegiak sartzen zirelako espedientean. Azken horietan kontratuak aldi baterako eteteko EEE ziren. Altsasuko, berriz, kontratuak haustekoa. Arrazoi horregatik Altsasuko enpresa batzordeak negoziatioak Nafarroan egiteko eskatu zion

Gamesari. Hala onartu zion Nafarroako lan ikuskaritzak ere. Baina EEE negoziatioa Madrilera eraman zuen eta Altsasuko langileen ordezkariak (ELA eta LAB) ez joatea erabaki zuten. EEEz Altsasun ordezkariarik ez zuten eta haien lantegietan kaleratzerik ez zeuden

sindikatuak negoziatu zuten.

Ondorioak

Enpresa batzordeko buruzen Ubaldo Solak "pozik" hartu du "epai argia. Baina ez da finkoa. Enpresak Espainiako Auzitegi Gorenera jo dezake. 10 egun ditu hori egiten duen jakinarazteko". Hala ere, egiten ez balu, langileen ordezkariak epaia indarrean jartzeko eskaera egiten lukete administrazioarekiko auzien epaitegian eta langileek enpresak berriro haiek hartzea eskatuko lukete. Beti ere, banakako eskaerak izan liteke.

Enpresak helegiterik aurkeztu ez badu itxiera eta kaleratzearen aurreko egoerara bueltatzera behartuta dago. Jakina, 2010etik langileek diru sarrera bat izateari utzi diote eta hura eskatzeko aukera luke. Enpresak, bestalde, aztertu egin beharko du langileei beste nonbaiten lana eman, banakako kaleratzeak negoziatzen dituen edo EEE berri bat aurkeztu duen.

>> Irurtzun

Inasaren akaboa

Hartzekodunen batzarrak ez zuten bideragarritasun plana onartu. Inasaren hartzekodunen konkurtsoa likidazio prozesuan da. Jabeek eta kudeatzaileek enpresaren gaineko ahalmena eta jabetza galduko dute

Inasako jabe Bavaria Industrial Kapital AGek (Baikap) 13 milioi euroko zorrak ditu. Hartzekodunen batzarra azaroaren 28an biltzeko zen Iruñeko Auzitegian. Baikapek bideragarritasun plana zuen mahai gainean, guztiei 7 milioi ordaindu eta lur eta pabilioekin gelditu, Portugalen ekoiztutako aluminio profilak saltzeko.

Hartzekodun nagusietako bat, BBVA, ez zen agertu eta Baikapen plana bertan behera gelditu zen. Ondorioz, Inasa konkurtso administratzaile (Sindikatura taldea) eta merkataritza-arloko epaitegiaren esku gelditzen da.

Langileen ordezkariak azaldu digute haiendako egoera berriak jokaleku hobe eskaintzen diela. Aurki batzarra egitekoak dira. Inasatik jubilatutakoek eta 10 urte baino gehiago lan egin dutenek enpresaren gizarite-aurreikuspeneko planetik dirua kobratzeko aukera dute.



Gertatutakoa lehenago pasa balitz lantegia zabalik legokeela uste dute askok.

Inasak bakoitzari zenbat zor dion kalkulatzeko hasiko dira orain eta banakako eskakizunak egiten dituzte epaitegian. Kutxan dagoenarekin eta lantegi eta lursai-

len salmentatik ateratzen denarekin haiei ordaintzeko izanen dela uste dute. Prozesua bi hilabete eta 3 urte bitartean luzatu daiteke. +www.guaixe.net

SAKANA

Toki administrazioen aldeko aldarria egin du EHBilduk

Toki-administrazioaren antolaketa erreformatzeko dauden proiektu eta lege proposamenen atzean toki entitateak eskumenik gabe uzteko arriskua dagoela salatu du

Nafarroako Gobernuak, PSNketa Espainiako Gobernuak Toki Administrazio arautzeko ekimenak abiarazi dituzte eta Nafarroako Parlamentuan ponentzia bat dago gai aritzeko. EHBilduk baztertua izan zen osoko emendakina aurkeztu zuen Nafarroan.

Kaolizioko kideen iritziz Espainiako Gobernuaren proiektuak "udal autonomia erasotzen du zuzen-zuzenean, aurrekaririk ez duen birzentralizatzea ezarri nahi du eta gizarite eskubideetan sekulako murrizketa aurreikusten du".

Egoera kezkarria eta larria dela uste du EHBilduk. "UPNren, PSNren eta PPren legegintza ekimen horiek, oro har, udal autonomiaren aurkako eta udalen nahiz kontzejunerabakitzeko gaitasunaren aurkako beste kolpe bat lirateke. Toki entitateak eskumenik gabe utziko lituzkete eta, horiek direnez herritarrengandik hurbilendak erakundeak, toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu asko murriztu edo desagertuko lirateke". EHBilduk argi du Nafarroako toki administrazioak gaur egungo errealitate ekonomikora eta sozialera egokitu behar dutela, baina beti ere egitura horiek indartuz, ez desagertuz.



EHBilduko alkateen agerraldia.

Gai horren aurrean Nafarroako Udala eta Kontzejunen Federazioaren "utzikeria" eta "jarrera ulertezina" salatu du EHBilduk eta biharko bere batzarreko gai ordean gaia ez egotea salatu zuen. "Federazioko zuzendaritza UPNk ezartzen dituen irizpideak jarraitzen ari da". EHBilduk erakunde guztiei eta gizariteari deia egin die eztabaida hori bulkatzeko urratsak eman ditzatela, udalen eskumenak eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak jokoan daudelako.

Esporrin Altsasuko sozialisten egoitzan izanen da astelehenean

Nahi duten sakandarrei informazioa eman eta haiengandik gaiak jasotzeko

Altsasuko Gertuko Bulego Parlamentaria astelehenean, 19:00etan, zabalduko da hirugarren aldiz. Atzera ere Maite Esporrin parlamentaria etorriko da Altsasuko Talde Sozialistaren egoitzara. Herritarrek informazioa eskatu edo intereseko edozein gai mahai gainean jartzeko aukera izanen dute. Esporrinek momentuan bertan ezin badu erantzun, "beharrezko gestioak egiten dituzte gero interesatuari jakinarazteko". Herritarrengandik gertuago egon, parte hartzea sustatu eta gardenetasun handiagoa izan. Hiru oinarri horietatik abiatuta hasi nahi du Roberto Jimenez idazkari nagusi sozialistak "birsorkuntza politikoko etapa berria".

» Olatzagutia



Olatzagutian ikusgai dagoen jaiotzetako bat.

Goi mailako jaiotzak

Gaurtik ilbeltzaren 12ra, astelehenera larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domekan 13:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era Sakanako Belenzaleak Elkartearen egoitzan

Bisitari joaten direnak jaiotza baten zozketarako txartelak eros ditzakete

Hamaikagarren urtez Sakanako Belenzaleen Elkarteak jaiotzen erakusketa antolatu du. Askorendako hutsik egin ezin dezaketen hitzordua da jaiotzen erakusketa eta urtero errepikatzen dute bisita. Estreinakoz joaten direnak atzera ere errepikatzen dute.

Elkartekideek egindako 11 diorama eta 2 arketa izanen dira ikusgai. Azken bi horiek Uhartea Arakilgo taldeak egin ditu. Olatzagutiaz aparte, Urdiainen, Altsasuko Bengoetxea drogerian eta Madrilen dauden elkarteak egindako jaiotzak daude ikusgai.

Elkarteko kideak goz aritu dira urte guztian (45 egun besterik ez dira geldi egoten) erakusketa prestatu ahal izateko. Makina bat ordu sartze horrek nekalbaldarratuta utzi ditu, baina egindako ahalegin handiarekin pozik daude. Baina bakarria despeditzea falta izan zaien jaiotza izan da. Hori heldu den urterako utzi dute.

Aurtengoan paisaia gehiago landu dute. Jaiotzetan mendi gehiago eta eraikuntza gutxiago dago. Bijaiotzetan ezik gainontze koetan mendia ageri da hondoan eta horrek sorkuntzei sakontasuna ematen die. Beste berrikuntzetako bat animalien irudiak dira. Jaiotzetan txoritxoak eta txakurrak ikus daitezke giza irudiekin batera.

Itzala

Sakanako Belenzaleen Elkartearen sona ibarretik kanpo zabaldu da eta estatuko makina bat tokitatik etorriko dira bisitak. Lastailan, esaterako, Sevillako bikote bat hartu zuten, oporraldia baliatuta Sakanako artistak lanean ikusteko. Bartzelonatik ere etortzekoak dira. Hilaren 22an, bestalde, estatu iparraldeko belenzaleak Donostian bilduko dira. Topaketa despeditu ondoren, Hego Euskal Herri-

ko, Asturias eta Errioxako belenzaleak Olatzagutira etorriko dira erakusketa ikustera.

Sakandarren jaiotzak halako ezagutza eta arrakasta lortzeko arrazoietakoa bat Internet da. Jaiotzetan espezializatutako foro eta blogetan askotan aipatzen dute sakandarren kalitatea. Hego Euskal Herriko onenak eta estatuko bigarren edo hirugarren onenak dira. Erakusketa egonkor bat turismoa erakartzeko aukera litzatekeela ere aipatu dute. Bisitari askok esan izan dute jaiotza erakusketa hori hiri batean gertakizun handia litzatekeela. Zabalkunde horretan bidelagun dituzte Jose Andres Iza Maizak egindako argazkiak eta bideoak, tarteka-tarteka sarean zabaltzen dituztenak.

Ikastaroa

Urtero antolatu du elkarteak jaiotzak egiteko ikastaroa. Zangoza (4), Noain (6) eta Ribaforada (4) elkarteetako kideei erakutsi diete sakandarrek. Haiek eskatu zieten harria sinesgarri nola egiten zen erakusteko. Baldintza izan zen gero ikasitakoa euren elkarteetan erakutsi beharko zutela. Eta hala eman zuten bi asteburu, 9:00etatik 18:00etara.

Jende askok eskatu die teknika erakusteko. Nafarroako Belenzaleen Federazioak ere heldu den urterako eskaria luzatu die sakandarrei, herrialde guztirako ikastaroa emateko. Proposamena aztertzen ari dira.

Sakanan ikastarorik eginen den ez dakite, atzeratuta duten egiteko bat despeditu nahi dutelako lehenik: arketetako goiko aldea oihalekin ixtea, zerua irudikatze ko eta egoitzako sabaia ez ikusteko. Horrek eskatzen dien lanaren arabera eginen da ikastaroa edo ez. Elkarteak 13 urte ditu eta gaur egun 55 bat kide ditu.

Egileak

Pako Sanz, Javier Beunza, Katy Mayor, Pedro Urkia, Luis Borrega, Jesus Mari Garmendia, Felipe Orabengoa eta Patxi Agirre.

» Altsasu

Ospa egunagatik deklaratzera

Ospa egunaren harira Garazi Urrestarazu alkateak eta Avelino Gonzalezek inputatu gisa deklaratu zuten atzo Iruñeko auzitegian. Estatuko segurtasun indar eta kidegoak iraintzea egozten diete. Euren abokatuaren galderei erantzun zieten soilik. Egin beharrekoa azkar egin zuten, fiskala ez zegoelako eta epaileak galdera gutxizituelako egiteko. Epaileak zer erabakiko zain gelditu ziren, baina asko ez dela luzatuko uste dute.

Bigarrenez

Agorriaren 30erako zegoen deitua Ospa Eguna: "Altsasuk sufritzen duen errepresioa eta poliziek erabiltzen duten bortizkeria eta gehie-

gikeriekin bukatu beharra dagoela" adierazi nahiz eta "indarokupatzaileek gure herritik alde egin dezatela" eskatu nahi zen. Besteak beste, bertso bazkaria eta kalejira zeuden deituta.

Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkariak, Carmen Albak, Ospa eguneko ekitaldiak debekatu zituen "legeak eskatu bezala, alde aurretik komunikatuak izan ez direlako". Albak azaldu zuen segurtasun indarren parodia egitekoa zela eta debekua betetzeko 100dik gora Guardia Zibil bidali zituen, helikopteroak eta guzti. "Neurri gabeko okupazio militarra" salatu zuten altsasuarrek.

Orain dela bi urte ere alkateak

eta hiru altsasuarrek Madrilera joan behar izan zuten, Erregearen diskurtsoa ekitaldiagatik. Fiskaltzak eskatuta epaileak auzia artxibatuta egin zen.

Erreakzioak

Sortuk ohar bidez adierazi du Guardia Zibilak gure lurtean betetzen duen helburu bakarra lege artotzak inposatzea dela. Euskal Herriak lehenbailehen desmilitarizazioa behar duela gaineratu zuten. Sortutik Altsasuko herritarren bidezko aldarrikapen eta dinamikaren kriminalizazioa salatu dute. Azkenik, Nafarroako indar politiko guztiak gonbidatu dituzte polizi eredu berri bati buruz hausnartzera.

Ardo azoka
ALTSASU · Gure Etxea
Abenduak 13/14/15

Ordutegiak:
• Ostirala 19:00
• Larunbata 12:00 // 19:00
• Igandea 12:00

Laguntzaileak: **beleixe**
Guaixe.net 107.3 FM



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Benita Artola Igoa
I. urteurrena

Udazken koloretan
landen lurrinak
zeharkatuz,
hitaz oroit
eta higan nauk.

Etxekoak



Eusebio Flores Razkin

II. urteurrena

Gure aldetik joan zinen,
gurekin zaude,
beti jarraituko duzu gurekin.
Maite zaitugu.

Hilaren 15ean, igandean, meza ospatuko da bere
oroimenez Arbizuko elizan eguerdiko 12:00etan.

Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

SALGAI

Irurtzenen pisua salgai. 70 m2 ditu. Eraikuntza berria. Plazan dago. Garajea, trastelekua eta igogailua. 2 logela, 2 komun, sukualdea, arropa zabaltzeko tokia, egongela zabalak. Telefonoa 650 57 95 42 Irantzu.

ALDATU

Pisua aldatu. Arbizun 3 gelako pisua (ganbara eta bajearekin) aldatzen da 4 gelako pisu-etxeagatik. Baldintzak negoziatzeko prest. Kontakturako telefonoa: 653- 72 64 76.

Opatutakoak / galdutakoak
GALDUTAKOAK

Txakurrak bilatzeko koilare beltz bat. Galdut. Garmin markakoa da. Aurkitu duenak, 696 33 66 47 telefonora dei dezala. Eskertuko da.

Ikastaroak

IFESek hainbat ikastaro antolatuta ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>.

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org.

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es.

Lehiaketak

Euskararen Ginkana. Antolatuta du Kutxa Ekoguneak Euskaltzaleon Topagunearen laguntzarekin. 3.000 € jasoko ditu talde irabazleak. Abenduaren 3tik urtarrilaren 16ra. Informazioa www.euskararenginkana.net webgunean.

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko diete.

Oharra

Odol emaleak. Hilaren 23an Uharte Arakilen, arratsaldean.

Nobel-Truk ekimena. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak JOKIN ZAITEGI itzulpen sariketa jarri zuen martxan. Haren bidez azken urteetan izendutako azken Literatura Nobel saridunaren lan esanguratsu bat euskaratu da. Beka deialdia baten bidez egiten da. Ekimenak aurrera segitzeko haren laguntzaile egin eta dirulaguntza ematera deitu du AEDk. Informazioa: www.aedekastea.com. Abenduaren 20ra arte.

Tartalarientzako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

CAF-ELHUYAR beka. Zientziaren/teknologiaren eta gizartearen arteko elkarrekin lantzeko duten proiektuei lagundu nahi die sariketarako. Proiektuen izaera zientifikoa, artistikoa zein soziologikoa izan daiteke, eta arlo zientifikoa eta soziala harremanetan jartzea izan behar du haien muinak. Ilbeltzaren 31ra arte. Saria 5.000€. Informazioa: www.elhuyar.org.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola libre nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpainak. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Hizkuntzak – trukea. Informazio gehiago zarabaldk@inigoaritz.com.

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural Kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinarreguilagunak.blogspot.com edo amigosfosefinarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informazioa: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasozen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idatzeko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoa.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua.

9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Asteleheneran Etxarri Aranatzen, asteartean Irurtzen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparaldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaizuen Elkarteak bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaizuen Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaizuek aisia behar dute. Laguntzaile izan nahi baduzu deitu

JAIOTZAK

- Ugaitz Garmendia Etxabe, azaroaren 27an Etxarri Aranatzen.
- Laia San Roman Mendinueta, abenduaren 3an Arbizun.
- Marwa eta Safae Fal, abenduaren 3an Irurtzen.
- Ander Bedoia Hurtado, abenduaren 4an Lakuntzan.
- Oihane Seco Etxabarri, abenduaren 6an Altsasun.

HERIOTZAK

- Francisco Albiztur Agirre, azaroaren 27an Olaztin.
- Mariano Garzetxe Zapater, abenduaren 7an Olaztin.
- Francisco Lopez Galarza, abenduaren 8an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaizuen Elkartetik.

Itzulpen zerbitzua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta elkarteek erabil dezakete urte guztian zehar. Doakoa da. Itzuli beharrezkoak jendaurrean edo agerian egon behar duen testua izan behar du. Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura egin behar dira (948 464 840 edo itzulpenak@sakana-mank.com) Ez dira bilera edo aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

Naziotasun eskubidearen urraketak salatzeko telefonoa. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean ageri den naziotasun eskubidea urratzen jarraitzen dute frantziar edo espainiar izatera behartzen gaituztenean. Gurea ez den naziotasuna adieraztera behartzen gaituzten bakoitzean (edozein izapide administratibo edo ekonomiko egiterakoan, botoa ematerakoan, etab.) salaketa egiteko telefonoa jarri du Udaltzainak: (0033) 559 595 648.

MOTOZIKLISMOA

MARIÑELARENA OSATZEN: Alex Mariñelarena pilotuari ebakuntza egin diote eskuin besaurreko erdialdeko nerbioan duen

konpresioa arintzeko. Motor gidariak ohikoak duten lesioa da hori. Hiru asteko epean osatuko da irurtzundarra.

Herri kirolak



Aurreko urteko Sakanako Herri Kirol Egunean aritu zirenak. UTZITAKOIA

Kirol Asteburua dakar Mank-ek

Ostiralean kirol balioei buruzko hitzaldia, larunbatean Sakanako Xake Txapelketa Ziordian eta igandean Sakanako Herri Kirol eguna Iturmendin

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Kirol Asteburua antolatuko du asteburu honetarako. Gaur, ostiralean, kirol balioei buruzko

hitzaldia izanen da Altsasuko Iortia Kultur Gunean, 19:30ean; bihar, larunbatean, Sakanako Xake Txapelketa jokatu da Ziordian, 10:00etatik aurrera; eta, igandean, Sakanako Herri Kirol Eguna hartuko du Iturmendiko frontoian, 12:00etan.

Gaur, hitzaldia: Nire seme/alabak kirola egitea nahi dut, baina... zenbat? Nola? Zertarako?

Abenduaren 13an, ostiralean, 19:30ean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean

Etzi, Sakanako Herri Kirol Eguna

Abenduaren 15ean, igandean, Iturmendiko frontoian, 12:00etan Aurreko urtean Etxarrenen ospatu zen Sakanako Herri Kirol Eguna eta aurten Iturmendin. Mank-ek antolatuko du, Iturmendiko Udalaren eta Sakanako herri kirolarien laguntzarekin. Sakanako Aizkora Eskolako aizkolariak eta Sakanako aizkolariak, Sakanako Harri Jasotze Eskolako kirolariak eta Sakanako trontzalariak ariko dira lanean.

Aizkoran:

* Josu Agirre-Mikel Agirre / Joan Flores-Angel Eraso
* Eloy Corchero-Arkaitz Jauregi / Goizeder Beltza-Ivan Resano /

Sakanako Mankomunitateak kirol balioei buruzko hitzaldia antolatuko du, kirol jardueretako ardura, begirale, guraso eta interesadun guztiari begira. *Nire seme-alabak kirola egitea nahi dut, baina... zenbat? nola? zertarako?* galderari erantzuna ematen saiatuko dira.

Juanito Erdozia-Juanjo Erdozia.

* Erakusketa: Nazabal eta Lopez

* Hiru belaunaldi elkarlanean:

Juanito, Juanjo eta Jon Erdozia

*Gaztetxoak: Ander eta Josu Parri-za eta Jon Erdozia

Harrian:

Xabier Igoa, Alvaro Zugarrondo, Jon Irañeta, Mikel eta Ianitz Lasarte, Aitor Oiarbide eta Patxi Ijurreta

Trontzan:

Itziar Nuñez-Ana Lopez / Ainhoa Mazkiaran-Irati Astondoa / Andra Mari ikastolako gazteak: Joseba Galarza-Urtzi Nazabal eta Adrian Joao-Xabier Basabe

Taila:

Sakanako Harri-jasotze Eskolako monitorea Mikel Lasartek motozerrarekin egurra tailatuko du.

Bihar Sakanako Xake Txapelketa

Abenduaren 14an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Ziordian udaletxean

Mank-ek urtero antolatzen duen Sakanako Xake Txapelketa bihar jokatu da Ziordian. Mank-ek Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldearen laguntza izan du, eta Sakanako Fundazioaren eta Ziordiko Udalaren babesarekin. Goizeko 10:00etan hasiko da, eta bazkaltzeko geldialdia egin ondoren, arratsaldean despedituko da. Aldi berean ELO 2000 puntutik beherako Nafarroako Txapelketa izanen da. 20 minutuko 8 partidara jokatu da, 2 kategoriatan, helduen eta gazteen mailan. Izena ematea egunean bertan egin daiteke, goizeko 9:30etik aurrera (5 euro).

Aurreko urtean Lizarragan jokatu zen Sakanako Xake Txapelketa. 25 xakelariren artean Adrian Ortega irundarra izan zen garailea, Mikel Otxoarekin puntutara berdinduta. 14 urtez azpikoan Alejandro Galvan izan zen garaile.

Aizkora

Ez zen Nazabalen eguna izan

IÑAKI AZURMENDIK JANTZI ZUEN EUSKAL HERRIKO TXAPELA

Euskal Herriko I. Mailako finala

1. Iñaki Azurmendi	38:03
2. Aitzol Atutxa	40:25
3. Floren Nazabal	41:10
4. Jose Mari Olasagasti	42:19
5. Unai Otaño	42:55
6. Jon Irazu	44:27

Floren Nazabal zen Euskal Herriko Txapelketa irabazteko faborit nagusia baina aurreikuspenek goitik behera huts egin zuten, Iñaki Azurmendik merezimendu oso txapela jantzi zuelako. Ez zen etxarriarren egunik onena izan eta horri gehitu behar zaio Azurmendik sekulako maila eman zuela, behetik gora egin zuela eta txapelketa primeran irakurtzen jakin zuela.

Oinbikoek erabaki zuten

Hasieran aizkolariak nahiko paretu ibili ziren, Azurmendi bere erritmoan zebilela, atzetik. Lau oinbikoetara iritsi arte. Hor berpiztu zen Arriarangoa, aizkorakadaz aizkorakada lehen postura igo baitzen, Nazabal eta Atutxa atzean utziz. Hortik aurrera etxarriarrak ezin izan zuten Azurmendiren erritmoa jarraitu. Azurmendik azken lau enborretan tarte polita ateratzen arerioei (38:03). Atzean, Aitzol Atutxa gazteak Nazabal gainditu zuen, meritu handiz. Azurmendik bi minutu pasa ateratzen zizkion Atutxari (40:25) eta hiru minutu pasa Nazabali (41:10). Laugarren postua, Naza-

baletik 9 segundo eskasera, Olasagastirendako izan zen (42:19). Eta atzetik sailkatu ziren Unai Otaño eta lesionatuta zegoen Jon Recondoren tokia bete zuen Jon Irazu.

Poza eta tristura

Azurmendik Euskal Herriko bere bigarren txapela lortu zuen. Nazabalek onartu zuen "indarrez justu" ibili zela. "Ez da nire egunik onena izan. Gorputza arraroa nuen eta ez naiz ibili behar nuen bezala. Baina ez zaio Azurmendiri inolako meriturik kendu behar" nabarmendu zuen etxarriarrak, Azurmendi zorionduz. Beste batean izango da, Floren.

Atutxa munduko aizkolari azkarrena Arbizon



Abenduaren 1ean 2013ko Munduko Aizkolari Txapelketa jokatu zen Arbizon, aizkolari azkarrenaren modalitatean. 70 aizkolari baino gehiago lehiatu ziren, 5 kategoriatan banatuta. Txapelketak, aldi berean, Jose Ignacio Flores "Axio" aizkolari ohia omendu zuen. Ziordian bizi den aizkolari arbizuarrak gaixotasun larria du eta sarrerekin jasotakoa bera laguntzera bideratu zen. "Munduko txapelketa bat da mundiala den pertsona bat omentzeko" adierazi zuen Egur Sporteko Luis Mari Bengoak, aizkolari guztiak Axiori dioten estimua nabarmenduta.

Atutxa jaun eta jabe

Kanporaketa sisteman jokatu zen txapelketa, enbor bakarrera. Elite mailan, Floren Nazabal bidean utzi zuen Donato Larretxea eta Aitzol Atutxa iritsi ziren finalera eta Atutxa izan zen txapelduna. 60 urtetik gorakoetan Migel Mindegia nagusitu zitzaion Leontzio Goñiri. 50-60 arteko mailako finalean Donato Larretxeak Joxe Ugarteburu izan zuen arerio eta Arantzakoa nagusitu zuen. 23 urtez azpikoan Ruben Saralegik 45 segundo ateratzen zizkion Jokin Alkizaletari. Eta 18 urtez azpikoan Iker Vicentek irabazi zion Julen Larreari.

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

OILATEGIKO ANIMALIEN PENTUSA 10KG.KO POLTSETAN

ANTSOTENEA
denda

Makailua
Konjelatuak

Tel.: 948 500 388
Foru enparantza 1
IRURTZUN

BUJANDA
okindegia

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

TxikiTxo
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

Pilota

Joanes Bakaikoa, lau t'erdiko Nafarroako txapelduna

Abenduaren 3an jokatu zen Nafarroako gazte mailako lau t'erdiko final handia, Guillermo Mazo Memoriala. Erreka taldean dabilen Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Bortziarik taldeko Jon Olaizolak profesional mailako pilota final ikusgarria eskaini zuten Labriten. Bi pilotariak hustu egin ziren baina, azkenean, txapela Etxarrira ekarri zuen Joanes Bakaikoa, Jon Olaizolari 18-15 irabazi eta gero.

Guztira 33 pilotari lehiatu dira Nafarroako gazteen mailako lau t'erdian, tartean Irurtzun eta Altsasuko Pilotajaukuko pilotariak. Bakaikoa eta Olaizola iritsi ziren finalera. Biek etorkizuna badute-

la demostratu zuten. Nahiz eta 18 urtez azpiko pilotariak izan, sekulakomaila eman zuten, pilotari profesionalen zifra erabiliz: 52 minutu eta 303 pilotakadako final gogor, lehiatu eta estuan, Bakaikoa Olaizolak baino akats gutxiago egin zituen -Olaizolak 8 akats eta Bakaikoa 5- eta ezker pareta bilatu zuen, arerioa gehiago estutzeko. Joanesek bere aita, Etxarriko alka-tea den Joxi Bakaikoa izan zuen botillero, eta nahiz eta Olaizolak altuera eta gorpuzkera gehiago izan, Etxarrikoak akaso erresistentzia gehiago izan zuen partidari. Partidan barna berdinketa asko izan ziren, baina hamabosna ber-



Bakaikoa txapelarekin. UTZITAKOAK

dindu ondoren, azken hiru tantotak Joanesek egin zituen. Zorionak Etxarriko txapeldunari!

Piltoa

Uharteko lau t'erdiko Ongayrendako

Alberto Ongay pilotari satrustegiarrak Uharteko Iruñekolau t'erdiko torneo irabazi du, final ikusgarrian Eneko Yoldiri 22-15 irabazi eta gero. Aipatu torneoan afizionatu mailako 70 pilotari aritu dira eta Aspeko profesional ohia izan da txapelduna. 3. eta 4. postua erabakitzeke lehian, Mattin Ezkurdiak 22-21 irabazi zion Ojueli, partida ikusgarrian.



Irurtzun Nafarroako Txapelketako finaletik kanpo

Nafarroako Pilota Txapelketako final erdietan, lehen mailan, Irurtzunek Txaruta eta Huarte A izan zituen arerio. Banakakoan, Otxandorenak (Txaruta) 18-8 irabazi zion Armendarizi (Irurtzun). Eta, banakakoan, Yoldiketa Linozainek (Huarte A) 12 tantotan utzi zituzten Alberto Ongay eta Mitxelena (Irurtzun). Hortaz, Irurtzun Nafarroako Kluben Arteko Pilota Txapelketako finaletik kanpogera da. Banakako finalean Zugarralde eta Txaruta lehiatuko dira eta binakakoan Huarte A eta Oberena A.

Areto futbola

Altsasuko All Starsek irabazi ditu Araiako 12 orduak

Ostiralean Araiako Areto Futboleko 12 orduak jokatu ziren. 16 taldek hartu zuten parte, sakandarrak tartean. Finalerdietara iritsi ziren 4 taldeetatik 3 sakandarrak izan ziren. Araiako 12 orduetako txapelduna Altsasuko All Stars taldea izan zen, Altsasuko Koxkari, final oso estuan, 4-3 irabazi eta gero.



Goian All Stars taldean eta alboan Koxka, txapeldunordea. UTZITAKOAK

Atletismoa

Igarzabal eta Insausti azkarrenak Altsasun

GARCIA DE EULATE ETA SAN MARTIN IZAN ZIREN LEHEN SAKANDARRAK ALBERTO BARRICARTE MEMORIALEAN

Goizeko izotzari eta lainoari eguzkiak hartu zion tokia, Altsasuko Zubeztia elkartek Altsasuko Udalen laguntzarekin antolatutako 33. Zubeztia Herri Lasterketa -30. Alberto Barricarte Memoriala abiatu zenean. Hala ere, hotza izan zuten lagun irteera hartu zuten 219 korrikalariak. Altsasuko herri gunean prestatutako zirkuituari 4 buelta eman eta gero, 12,4 km osatu zituzten. Barricarte Memoriala proba herrikoia da, oso estimatua. Ez da inskripziorik ordaindu behar eta San Silvestrea prestatzeko proba polita da.

Juanjo Igarzabal izan zen azkarrena (40:36), eta Zumarragakoak bere hirugarren garaipena lortu zuen Zubeztia elkartek antolatutako lasterketa herrikoia honetan. Lasterketa ia oso bakarrik egin zuen. "Abantaila hartu dut eta ateratako alde hori kudeatu dut. Lasterketa hau nahiko gogorra da, erritmo aldaketa asko baititu, baina oso polita, herrikoia, eta ibilbide guztian barna animatzen du publikoak" adierazi digu udan mendiko lasterketetan eta neguan



Korrikalariak Zubeztian barna. Hotzari egin behar izan zioten aurre.

asfaltoan lehiatzen den kirolari gipuzkoarrak. Bere atzetik Julen Basterretxea gasteiztarak (40:40) eta Angel Vazquez lazkaotarrak (41:35) osatu zuten podiuma. Lehen sakandarra 4. postuan sartu zuen Sergio Garcia de Eulate altsasuarra izan zen (41:54). Emakumezkoetan, Altsasuko proban debutatu zuen Olaberriako Amaia Insausti ez zuen areriorik izan eta 3 minutu pasatxo atera zizkion Sonia Reyes beasaindarrari (53:39).

Erkuden San Martin etxarriarra izan zen hirugarrena eta lehen sakandarra (54:27).

Proba hasi baino lehen minutu bateko isilunea gorde zen atletismoari lotutako eta berriki zendutako Esteban Martinezen alde. Hain zuzen ere, bere seme Juan izan zen Zubeztia elkartetik proban sailkatutako lehena. Bukaeran korrikalariak trofeoak eta opariak jaso zituzten Zubeztia elkartean eta auzate ederra egon zen guztiendako.

33. Zubeztia Herri Lasterketa - 30. Alberto Barricarte Memoriala. Sakandarrak.

1. Juanjo Igarzabal (Zumarraga) 40:36
2. Sergio Garcia de Eulate (Alts) 41:54
3. Javi Moreno (Alts) 42:07
4. Felix Benjumea (Alts) 43:21
5. F. Javier Gomez Fernandez (Alts) 44:21
6. Jose Javier Maiza (Etx) 44:29
7. Iban Gonzalez (Urd) 44:47
8. Andoni Azanza (Alts) 46:22
9. Juantxo Arregi (Alts) 46:54
10. Alberto Razkin (Etx) 47:19
11. Iker Flores (Urd) 47:19
12. Isidro Asurabarrera (Alts) 47:25
13. Mikel Lakuntza (Alts) 47:25
14. Iraitz Senar (Lak) 47:25
15. Juan Luis Maiza (Etx) 47:25
16. Emilio Guirado (Alts) 48:36
17. Juantxo Azurmendi (Alts) 48:48
18. Santi Agirre (Itur) 49:06
19. Alberto Mazkiaran (Alts) 49:27
20. Juan Carlos Perez (Alts) 49:50
21. Jose Ramon Ramirez (Alts) 50:09
22. Axier Larrion (Alts) 50:09
23. Javier Borrega (Alts) 50:35
24. Juan Martinez (Alts) 50:35
25. Borja Gonzalez (Urd) 52:01
26. Iñaki Alvaro (Alts) 52:37
27. Julen Paniagua (Urd) 52:37
28. Ismael L. de Goikoetxea (Alts) 53:09
29. Alberto Agirre (Alts) 53:31
30. Peio Larraza (Alts) 54:09
31. Erkuden San Martin (Etx) 54:27
32. Jose Antonio Salgado (Urd) 54:27
33. Mari Gwen Davies (Alts) 55:02
34. Jone Pelaez (Alts) 55:02
35. Jose Reyes Palacios (Alts) 55:12
36. Aingeru Azazeta (Alts) 55:16
37. Borja Imaz (Alts) 55:47
38. Esteban Tejedor (Alts) 56:20
39. Asier Palacios (Alts) 56:36
40. Aitor Salinas (Etx) 56:42
41. Izaskun Beunza (Olaz) 58:16
42. Ignacio Ramirez de Alda (Alts) 58:46
43. Xabier Ramirez de Alda (Alts) 58:46
44. Jose Mari Mercero (Unanu) 59:46
45. Izaskun Lezea (Lak) 1:00:38
46. Ixa San Martin (Etx) 1:02:52
47. Mikel Senar (Alts) 1:04:28
48. Mikel Tainta (Alts) 1:07:39
49. Josune Senar (Alts) 1:07:39

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

16. JARDUNALDIA

ARTAJONES 0 - LAGUN ARTEA 0
Orain dela bi aste Lagun Arteak 3-2 irabazi zion Cirbonerori, baina asteburuan Artaxonan jokaturako partida puntu banaketarekin despeditu zen. Partida oso lehiatua lehen zatian Artajones izan zen onena, baina Laguneko Orrio atezainak geldialdi bikainak egin zituen eta Unai Bakaikoaren aukera bikaina gelditu zuen Artaxonako atezainak. Bigarren zatian jokaldi argiak egon ziren baina baloia ez zen sartu.

Sailkapena >>

1. San Juan	38 p
12. Lagun Artea	19 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - MUTILBERA
(Ilgandean, 15:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

12. JARDUNALDIA

ALTSASU 1 - AMAYA 2
BETI ONAK 4 - ETXARRI ARANATZ 1
UNIV. DE NAVARRA 1 - LAGUN ARTEA B 1
Altsasu aurreratu zen markagailuan Xabi Lopezek sartutako gol ikusgarri bati esker. Baina 2. zatian defentsa hutsegite batzuk izan zituen Altsasuk eta hor joan zitzaizen partida, Amayak egoerari buelta eman baitzion, 2 gol sartuta. Sailkapenean 2. postuan jarraitzen du Altsasuk. Bestalde, eta nahiz eta Etxarri markagailuan aurreratu, Beti Onakek berehala eman zion buelta partidari eta 4-1 gailendu zen. Bukatzeko, Lagun Artea B izan zen markagailuan aurreratu zena baina 89. minutuan Universidad de Navarrak berdintzea lortu zuen.

Sailkapena >>

1. Beti Kozkor	26 p
2. Altsasu	23 p
9. Lagun Artea B	16 p
15. Etxarri Aranatz	10 p

Asteburuko jardunaldia

SAN JORGE ALTSASU
(Larunbatean, 15:45ean, San Jorgen)
ETXARRI ARANATZ - BETI KOZKOR
(Ilgandean, 15:30ean, Etxarri Aranatzen)
LAGUN ARTEA B - BERRIOZAR
(Larunbatean, 20:00etan, Berriozarren)



Altsasun aurkezpena. UTZITAKOAK

Futbola

SAKANAKO FUTBOL 8 TXAPELKETA

7. jardunaldia jokoan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, martxan da Kimuen Futbol 8 Topaketa. Aipatu topaketa txapelketa moduan jokatzen ari da eta asteburuan joaneko 6. jardunaldia jokatu zen. Ilgandean 7. jardunaldia hartuko du Altsasuko Dantzalekuk.

7. jardunaldia

Ilgandean, Altsasuko Dantzalekuan

11:30ean: Etxarri Aranatz - Tipi Tapa
12:30ean: Lagun Artea - Urdaian
11:30ean: Arbizu K.T. - Kaixo
12:30ean: Sayas - Dantzaleku
Atsedean: Txartel

Pista txirrindularitza

Hodei Mazkiarnek brontzea ekarri du Munduko Kopatik

Mexikoko Aguascalientesen jokatu da Munduko Pista Txirrindularitza Kopa. Espainiako selekzioak hautatuta aritu da Hodei Mazkiaran. Altsasuarrak brontzezko domina lortu zuen bana-kako abiadura proban, Jose Moreno eta Juan Peralta taldekideen atzetik sailkatu eta gero. Aipatu hiru txirrindulariek taldekako abiadura proban 10.ak izan ziren, Espainiako errekorra gaintuz (43.801). Bestalde, Hodei Mazkiaran 12.a sailkatu zen 200 metroko proban (1:00.069), 1995. urtean Jose Antonio Escuredok ezarritako Espainiako marka gaintuz.



Pala

SAKANAKO EMAKUMEEN VIII. PALA TXAPELKETA

Palista onenen ordua

Finalerdietako emaitzak

Kimuak:

Maitena-Elai 18 / Ane-June 0

Elorri-Saioa 18 / Uxue-Narrea 14

Kadeteak:

Ariane-Uxue 25 / Garazi-Aiora 18

Irati-Ane 25 / Maddi-Amaia 17

Gazteak:

Andrea-Irati L. 25 / Irati-Miriam 14

Olaia-Izar 12 / Uxue-Andrea 25

Helduak:

Laura-Nagore 18 / Yanira-Rebeka 30

Ainhoa-Maddi 28 / Maite-Saioa 30

*Haurren kategorian sei jardunaldi jokatu dira eta bi onenak sailkatu dira finalerako.

Bihar, larunbatean, 9:30etik aurrera, finalak jokatu dira Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan

Lastailaren bukaera hasi zen Sakanako Emakumeen VIII. Pala Txapelketa eta bihar, larunbatean, despedituko da, Etxarri Aranazko pilotalekuan jokatu diren fina-

Etxarriko Nesken Pala Eskolak ekipamendu berria aurkeztu du



Abenduaren 1ean Etxarri Aranazko Nesken Pala Eskolak ekipamendu berria aurkeztu zuen, Napar Pala Txapelketa Etxarri abiatu zela aprobetxatuta. Ekipamendua Baiza Motor tailerrek babestu du. Etxarriarrek kamiseta urdin bat eta beste gorri bat izanen dituzte eta kirol-jertse edo sudadera beltza bat. Bestalde, Napar Pala txapelketan igandean 3. jardunaldi jokatu da. Zubirin, lehen mailan, Amaia eta Saioa Aristorenak Irantzu eta Maider S. izanen dituzte aurkari, eta elitean Yanira Aristorenak eta Maider Mendizabalek Itsaso eta Leire. Tafallan, lehen mailan, Olaia Izagirik eta Maider Huizik Judith eta Inesen kontra jokatu dute.

Finalak

Larunbatean, 9:30ean Etxarri

Kimuak: Maitena-Elai / Elorri-Saioa

Haurrak: Dinora-Ainhoa / Aroa-Oihane

Kadeteak: Ariane-Uxue / Irati-Ane

Gazteak: Andrea-Irati L. / Uxue-Andrea

Helduak: Yanira-Rebeka / Amaia-Saioa

lekin. Txapelketa Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du, Etxarriko Nesken Pala Eskolarekin. Aste hauetan barna guztira 26 bikote lehiatu dira, 5 kategoriatan: kimuak (5 bikote), haurrak (4 bikote), kadeteak (6 bikote), gazteak (5 bikote) eta helduak (6 bikote).

Emakumeen palak osasun handia du Sakanan. Palista bikainak ditugu eta finaletan partida ikusgarriak espero dira.

Saskibaloia

SAKANAKO I. SASKIBALOI TOPAKETAK

4. jardunaldia Etxarri Aranazten

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloi Topaketak antolatu ditu. 8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak lehiatzen dira. Igandean 4. jardunaldia hartuko du Etxarri Aranazko San Donato ikastetxe publikoko pilotalekuak 11:00etan Beriainek Putterri izango du aurkari eta 12:00etan Balankalekuk Martinsasti.

Mendia

Iratxokoak Aixitan eta Gaztelun

Iratxo mendi taldeko kideek mendi irteera egin zuten asteburuan. Tartean, Aixitan eta Gaztelun izan ziren eta talde argazkia atera zuten.

Asteburukoak

Iganderako ibilbidea antolatu du

Sakanako Mendizaleak taldeak. Ollora joango dira. Autobusa Olaztitik aterako da, goizeko 7:00etan, eta herriz herri pasako da mendizaleak jasotzen. Bere aldetik, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak irteera antolatu du Bardeetara.



Futbola



217 futbolari SDA-n

Sociedad Deportiva Alsasuako (SDA) futbol sekzioak 2013-2014 denboraldiko futbol taldeen aurkezpena egin zuen ostiralean Dan-

tzalekun. Guztira 217 futbolari irratzi dira lanean, 13 taldetan banatuta, aurrebenjamin mailatik hasita erregional mailara. Kimuen mai-

lakoak Sakanako Futbol Topaketan aritzen dira, haur eta kadeteak Nafar Kirol Jolasetan eta jubenilak eta erregional mailakoak Nafarroako Futbol Federazio-ko txapelketetan. SDA-ko presi-

dente Pablo Lopez Colinak adierazi duenez, futbolariek osasun handia du Altsasan. Bide batez, presidentek babesleen, laguntzaileen eta gurasoen laguntza eskertu zuen.

Areto futbola

Magna Xotak Espainiako Koparako sailkatzea lortu du

Rios Renovablesi 4-0 irabazi zion Irurtzungo taldeak

Magna Nafarroa Xotak helburua bete du: Espainiako Kopan aritzeko sailkatu da. Tuterako Rios Renovablesen kontrako derby ikusgarria 4-0 irabazita lortu ditu Imanol Arregiren taldeak Espainiako Kopan aritzeko beharrezkoak zituen puntuak eta oso pozik daude Irurtzunen. Inter Movistar da ohorezko mailako liderra (37 puntu). Magna Nafarroa Xota 6.a da (21 puntu). Ostiralean Peñiscolan jokatu du Irurtzungo taldeak, 20:30ean, sailkapenean 10.a den Peñiscola BOD Dunviro taldearen kontra.

ESNE BILKETA AURRERA

Xota fundazioa esne bilketa egiten ari da. Zaleek eta Marcillako Precomar babesleak emandako laguntzari esker, azaroan 6.000 Lacturale esne litro jaso zituzten Nafarroako Elikagaien Bankurako eta berriki beste horrenbeste eman dituzte. Helburua kamioi batean sartzen diren 22.500 esne litro lortzea da. Horretarako partidetan esne kaxak jasotzen dituzte eta kontu korrante zerbakia zabalik dute.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

ILEAPAINDEGIA

ENRITZ

Artola Kalea 4 behea • Ebarri Aranatz • 948 461 972

Enbatako irratia

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

FLORES S.L.
Arizkar txistorrak

Txistor ekologikoa

Uztubar industriak - Rlf. - Faxa: 948 460 499 41063211

kultura >>

LHKO ETA DBHKO IKASLEENDAKO MIKRO-IPUINLEHIAKETA: Ikasle sakandarrek sari bat baino gehiago eskuratu izan dute Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Etxeak antolatuta-

ko mikro-ipuini lehiaketan. A eta D eredueta-ko ikasleek aurkeztu ditzaketelanak, 100 hitz-ko mugagaitu gabe, abenduaren 20ra arte. Non: mikroipuinak@euskokultur.org.

Platerak betetzeko xarmadun kantuak

Larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Jasotako dirua Nafarroako Elikagai Bankuari emanen zaio

Eguberrien aurretik Trasteando taldearen emanaldia ohitura bihurtu da altsasuar askoren agendan. Zortzigarren urtez *Cantos con encanto* kantaldi bikoitza eskainiko du musika taldeak. Euren erreperitorioan aski ezagunak diren atzoko, gaurko eta betiko kantuak, hangoak eta hemengoak, kantatuko dituzte. Eta, haiekin batera, altsasuarren musika memoria biziberrituko dute.

Kantu altsasuarrak ere

Tartean, heldu den urteko garile-

an aurkeztu asmo duten kantu altsasuarren bigarren bilduma-ko ale batzuk emanen dituzte bihar Iortia eszenatokitik.

Laguntzaileak

Trasteando 7 emakume eta 6 gizonek osatzen dute. Bihar oholtzan honako musikarien laguntza izanen dute: Pedro Jimenez (perkusioa), Javi Herrero (perkusioa), Josetxo Lumbreras (perkusioa), Ekiñe Lumbreras (zeharkako txirula), Javi Martinez (tronpeta), Jesus Irisarri (tronboia eta bombardinoia), Iñigo Goikoetxea (baxua), Karlos Sanchez (txistua eta txirula), Jorge Cordon (teklata eta kena) eta Leire Aiestaran (akordeoia).



Jakien bankurako

Entretenitu, oigatu eta bestelako funtzio prestuez aparte musikak funtzio soziala izan dezake eta hala behar du. Hori uste dute Trasteandokoek. Horregatik, musikaren bidez, gehien sufritzen dutenei lagundu diezaieketela sinetsita igoko dira eszenatokira. Bigarren urtez Trasteandok elkartasun kontzertuetan biltzen den duendirua Nafarroako Jakien Ban-

kuari emanendio (aurreneko emanaldiko sarrerak agortuta daude). Ongintzako fundazio independente, laiko eta irabazi asmorik gabeko erakundea da bankua. Bere egiteko nagusia enpresa eta pertsona laguntzaileek ematen dioten jakiak biltzea da, ondoren, haiek sailkatu, bildu eta banatzeko. Nafarroan Bankuak biltzen dituen jakiak 245 erakundek banatzen dute. Altsasun, Caritas eta etorkinen komunitatea aritzen dira horretan.

Parkinsonaren aldeko doinuak

Abenduaren 18an, asteazkenean, 18:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean

Nafarroako Parkinson Elkarte (ANAPAR) abesbatza eta Trasteando taldea elkarrekin igoko dira asteazkenean eszenatokira. Parkinsonaren aldeko doinuak emanaldiarekin gozatzeko aukera izanen du nahi duen guztiak, sarrera libre delako. ANAPAR elkarte berriki Parkinson gaitza duten pertsonendako fisioterapia saioak eskaintzen hasi da Altsasun: asteartean, 11:30etik 12:30era eta ostiraletan 12:00etik 13:00etara. Gainera, horren aurretik edo ondoren bakarkako saioak egiteko aukera dago Altsasuko Intxostiapuntako gimnasioan. Harremanetan jarri nahi duenak: 948 232 355 edo asociacion@anapar.org.

Sakandarrak Antzerkizale egunean

Bihar ospatuko da Berriozarren eta euskarazko antzerkigintzaren aldeko aldarria eginen da

Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarteak (EHAZE) euskarazko antzerkigintza eza-gutzera emateko eta haren aldeko aldarria egiteko IV. Antzerkizale eguna antolatu du Berriozarren, *halgi hadi taulara* leloarekin.

Antolakuntzan aritu den Zoila Berastegi arbizuarrak adierazi du



Nafarroan euskarazko antzerkia egitea ez dela erraza. Berastegik

biharko eguna aukera baten moduan ikusten du: elkar ezagu-

Egitaraua

>> Abenduak 13, ostirala 17:30ean Mahai-ingurua: Zer da EHAZE? Zer leku du euskal antzerkigintzak Nafarroan? Norantz goaz? Nortzuk? Oztopoen aurrean aukera berriak eraikiz. Kultura programatzaileak eta aktore profesional eta amaterrak. Kultur gunean.
>> Abenduak 14, larunbata 11:00etatik 11:30era Jaiaren hasiera Musikaz Blai.
11:30etik 13:30era. Helduendako, sormen adierazpen tailerra. Jon Barbarin, kultur gunean.
Haurrendako, maskara tailerra. Patxi

Fuertes eta Laura Villanueva, kultur gunean.
Irakurketa dramatizatuak, euskalgintzako eragileak. Euskal Herria plazan.
Tartean gosaria eta musika.
14:30ean Bazkaria Zulo-alai elkartearen.
15:30ean Txikiren bakarriketak.
17:00etan Umeendako ipuin kontalaria: Ipuinen lapikoa, Izaskun Mujika. Kultur gunean.
18:00etan Mikro-antzerkien zirkuitua. Nafarroako antzezleak. Berriozarko txokoetan.
19:30ean Manifestu irakurketa eta 2013ko EHAZE Saria. Areto nagusian.
20:00etan Akaberako antzezlan: Itzalak, Kabia konpainia. Areto nagusian.

tzeko gune bat eta aurrera begira-ko lehen urrats bat. Bertan izanen

dira Jon Barbarin eta Izaskun Mujika ihabardarrak.

Agiriko aztarnak herrian

Asteleheneetik aurrera, goiz eta arratsalde, Uharteko Arakilgo udaletxeko ezkaratzean

Azken bi gariletan Donibane jubilatuko elkarteko kideak Agiriko (Agiregi) despopulatu arkeologia-indusketan

parte hartzen egon dira. Pedro Arrese Villanueva Zizur Nagusiko institutuan historia irakaslearen zuzendaritzapean aritu dira bi urte hauetan.

Bilan eremutan aritu dira orain arte, eliza eta herria. Elizakoak ziren harri landuak opatu dituz-

te. Herrian, berriz, zeramika pus-kak, errota eta beste opatu zituzten. Horiek eta hainbat argazki izanen dira erakusketan ikusgai izanen direnak.

Agiri despopulatuko aztarnak ikusgai

Abenduaren 16tik ilbeltzaren 6ra, goiz eta arratsalde, Uharteko Arakilgo udaletxeko ezkaratzean.



Album ilustratu bat sortzeko tailerra

Abenduak 20, ostirala. 17:00etatik 19:00etara Iortia kultur gunean

- 6-10 urte bitarteko haurrendako
- Izen-ematea Iortia kultur gunean (hilaren 17ra arte)

Antzolatzailea: **Mank**

Laguntzailea:  Altsasuko Udala





Haize Berriak banda Queen omenduz

Abenduaren 28ko emanaldirako sarrera guztiak agortuta, ilbeltzaren 4an emanaldi berria izanen da Altsasuko Iortia kultur gunean

Iturralderekin hitzordua

Abenduaren 18an, asteazkenean, 9:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean

Joxe Mari Iturralde idazlea gonbidatu dute aurten Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta AEK-k. Haren *Polonia-ko lautada izoztuak* eta *Rasputin eta San Petersburgoko gauak* liburuak irakurtzeko proposamena luzatu dute, bai euskaltegiko ikasleei bai sakandar guztiei ere. Horiak irakurri ondoren egilearekin haiei buruz hitz egiteko aukera izanen da asteazkenean.

Liburuak

Polonia-ko lautada izoztuak (Igela, 2001). Erdi mailakoa. Maitasun istorio bat kontatzen du bukaerara arte argituko ez dena. Horrela liburu guztian zehar misterioa mantenduko du. Narrazio berezia da, misteriotsua eta interesgarria, normalean oharkabean pasatzen diren detaile txikiak deskribapenari garrantzi handia ematen diona. **Rasputin eta San Petersburgoko gauak (Elkar, 2013). Goi mailakoa.**

Rasputin Errusiako Romanov dinastiaren azken urteetan ospe handiko pertsonaia eztabaidatsua izan zen. Iturralde Errusiako azkentsarraren egunak berregiten ditu eleberri honetan.

Arretxe Bilbon omendua

Bilboko Udalak, Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta, zenbait idazleri omenaldia egin eta esker ona adierazi zien, euren liburuetako istorioak Bilbon kokatu dituztelako. Omenduetakoen artean Jon Arretxe idazlea zegoen. Bere azken bi nobelak, *19 kamera* eta *612 euro* Bilbo dute eszenatoki.

Tokia dago oraindik Altsasun album ilustratua sortzeko

Hilaren 20an, 17:00etatik 19:00etara, 6 eta 10 urte bitarteko haurrek album ilustratu bat sortzeko aukera izanen dute Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Horretarako Yolanda Arrieta idazlearen eta Ainara Azpiazu ilustratzailearen aparteko laguntza izanen dute. Izena eman nahi duenak Altsasuko Iortia kultur gunetik pasa behar du. Oraindik bada tokirik.

Sakanako musika banda, Haize Berriak, Queen talde britainiarra ardatz duen kontzertua prestatzen ari da. Rock taldeak bere aurreneko diskoa karrikaratu zuela 40 urte betetzen direla ospatu nahi du emanaldi horrekin bandak. Haize Berriak bandarekin batera, rock musikariak, abeslari gonbidatuak eta bestelako sorpresak izanen dira, guztia ikuskitzuna aurrera egin behar duelako. Hasiera batean emanaldi bakarra aurreikusia zegoen, abenduaren 28koa. Baina sarrera guztiak berehala saldu direnez, bigarren emanaldi bat egingen du bandak, ilbeltzaren 4an. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

Unanuak zuzendu du Virenqueren bideoklipa



Urñeko Virenque taldeak bere diskoan jasotako bost kantueta-ko batekin, *Beside the fountain*, bideoklipa egin du. Taldekide baten ezaguna da Xabier Unanua, ikus-entzunezkoetan aditua, eta hala bukatu du irurtzundarrak bideoa egiten. Denetarik, baina batez ere zuzendari, gidoia, edizioa eta postprodukzioa izan dira bere egitekoak.

Bikote baten banaketa kontatzen du abestiak. Jaunsaras inguruko laku batean eta Landetako hondartza batean grabatu da. Urarekin eta taldeko abeslari Eneko Zabalezekin batera, Mar Gonzalez Ruiz de Larramendi aktorea da bideoko protagonista. Egiarretako aktorea Irurtzungo antzerki tailerrean aritutakoa da. Unanuak Alberto Truano errealizadorearen laguntza izan du, Dani Martin edo Jorge Drexlerrekin lan egindakoa.

Bertan behera Vendettaren Bakaikuko kontzertua

Munduan barna ibili eta gero, Atzo, Gaur eta Bihar (2012, Baga Biga) diskoa aurkezteko bira Bakarrekotexea elkartean despiditzekoa zen bihar Vendetta. Baina musikarietako baten gaixotasunak emanaldia bertan behera utzi du. Nafarroa 1512 street-punk talde arbizuarrarekin batera jotzeko aukera izanen da.

Testuren leherketaren ondoren, Nazabal jendaurrean margotzen

Asteleheneetik igandera, 20:00etatik 22:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean

Iztar Nazabalek koadro bat sortu aurretik egiten duen aurreneko gauza sentimendu, mantxa eta testuren leherketa da. Eta berak gonbidatuta, boluntarioek egin zuten hori, abenduaren 1ean. Orain, lan horretan oinarrituta, Nazabalek oihal horretan sortzeko prozesua hasiko du. Gonbidatuek sortutakoak zertarako bide ematen dion pentsatu ondoren jendaurrean margotzen ariko da heldu den aste osoan.



Iortia kultur gunean ikusgai duen *Zigilua*, prozesua eta interakzioa erakusketaren barruan kokatzen da Nazabalen ekimen hori. Erakusketa abenduaren 1etik dago

ikusgai. Ehundik gora pertsona bildu ziren aurreneko egunean, eta Nazabalen azalpenen ondoren Irantzu Gonzalezen dantza saio batek mustu zuen erakusketa.

Sexu indarkeriaren kontrako kantua sortu du Gaur Ez taldeak

Emakumeenganako indarkeria salatzen den Eten bilduma jasoa dago, Euskal Herriko beste 21 talderen kantuekin batera

ON taldeko Itsaso Gutierrezen ekimenez sortu zen Eten bilduma, emakumeenganako indarkeria salatzea helburu duena. Krisiak eraginda sexu indarkeria jasan duten emakumeak laguntzen dituzten elkarteendako diru gutxiago dago. Kontzientiazio kanpaina gutxiago egoteak tratatu txarren salaketa kopurua jaistea ekarri du. Sexu

indarkeria salatu eta talde horiendako diru iturria izateko asmoz sortu da Eten bilduma. Baita hura aurkezteko azaroaren 30ean Durangon egin zen kontzertua.

Emanaldian Gaur Ez taldeak ezin izan zuen parte hartu, baina bildumarako sexu indarkeria hizpide duen kantu bat sortu du propio. Xabier Unanua (baxu-jolea) irurtzundarra da taldeko kidea. Unanuak esan digunez, nahiz eta Jule (abeslaria) Alemanian eta Julen (bateria) Senegalaren egon Gaur Ez une honetan sortze lane-



an ari da. Haiek bueltatu arte, teknologia berriek laguntzen dute entsegulokalean sortutakoa aurrera eramaten.

Emak Bakia filma ikusteko gonbiteak jaso daitezke

Abenduaren 26an, ostegunean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean, dohainik

Oskar Alegria iruindarrak zuzendutako *Emak bakia* (utzi bakean) filma doan ikusteko aukera izanen da bi aste barru. Horretarako Iortia kultur gunetik sarrera hartzeraz pasatu beharra dago. Filmak Alegria beraburu belarri sartzen den bilaketa baten berri emanen du. Man Ray-

ren *Emak bakia* 1926ko filmean Miarrizetik gertu dagoen izen bereko etxea agertzen da. Hiru irudi besterik ez. Eta haiek oinarri hartuta Alegria etxe horren bila abiatzen. Bilaketa horren lekuko da filma.

Zinema emanaldi horren eskaintza Altsasuko Udalak eta Sakanako Mankomunitateak egin dute, *Euskara sorkuntzari, sorkuntza euskarari* izeneko programaren bidez. Bi erakundeek euskara sustatzeko helburua dute,

eta sustapen lan horren barruan aparteko garrantzia eman diote euskaraz sortutako kultur produktuen zabalkundea eta haren kontsumoa handitzea, tartean zinema ekoizpenak.

Emanaldi horrekin Sakanan helduendako euskarazko filmen ikusle kopurua handitu nahi dute udalak eta Mank-ek. Izan ere, Iortia kultur guneak zinema-programazio egonkorra eskaintzen du urtean zehar, eta euskaraz sortu edo itzulitako familiendako filmak proiektatzen ditu hileroko; noizbehinka, helduendako filmak proiektatzen ditu, baina ikusle gutxi joan ohi da.

<p>lortiakultura.com</p> <p>webgunean sartu eta sarrerak erosi inolako kostu gehigarrik gabe!</p> <p>DORAEMON Y NOBITA HOLMES</p> <p>EN EL MISTERIOSO MUSEO DEL FUTURO</p> <p>IGANDEA 15 17:00</p>	<p>DE ÓXIDO Y HUESO</p> <p>OSTIRALA 13 21:45</p> <p>IGANDEA 15 20:00</p>	<p>GRAVITY</p> <p>OSTIRALA 13 22:00</p> <p>IGANDEA 15 20:10</p>
--	--	---

G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 40%	euria: 63%	euria: 8%	euria: 4%	euria: 18%	euria: 8%	euria: 68%
Min: 2 Max: 10	Min: 6 Max: 9	Min: 1 Max: 12	Min: 3 Max: 11	Min: 4 Max: 9	Min: 4 Max: 9	Min: 4 Max: 7

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	11.7	-4.3	0.6
Altsasu	11	-0.3	0
Aralar	10	-2	0.4
Urbasa	10	-8	0

: ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
17	25	1	8

Acrycolor SISTEMA BERRIA **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK Tel: 948 563 253 Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

beleixe guaix **Azaroko bazkide sarituak**

- Gloria Onda Flores** (Arbizu)
- Zabalarte Elkartea** (Lakuntza)
- Abarne Razkin Lizarraga** (Arbizu)
- Iñaki Seko Garin** (Altsasu)

ABENDUKO SARIAK:

1- LIBURU LOTEA+EKAINBERRIRAKO 2 SARRERA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA	NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA
2-LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA	3- LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA
	4- LIBURU LOTEA+LACTURALE INTERPRETAZIO ZENTRORAKO 2 GONBIDAPEN+MAGNA NAVARRA IKUSTEKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Blanca Amoztegi
Satrustegiko bitxigilea

Testua: Maialen Uharte



2014 kilo zorion guztiondako

carniceria harategia J.J. ALDASORO

EUSKADIKO XII. TXISTOR LEHIAKETAKO TXAPELDUNA ORDIZIAN CAMPEON DEL XIIº CONCURSO DE CHISTORRA DE EUSKADI EN ORDIZIA Zelai z/g. 31800 Altsasu (Nafarroa) T. 948 562 405

2014 **UTXABILL ENERO** **OTSXILI FEBRERO**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31	24	25	26	27	28

948 564 275 argi@guaix.net
guaixekomunikazioa.blogspot.com.es

1.- Bitxigintzan diharduzu, zer egiten?
Orijinaltasuna bilatzen saiatzen naiz eta gustuko dudana egiten. Material birziklatuarekin egiten dituzten bait krisketa adibidez, jertseetan eta berokietan jartzen diren apaingarriak. Kafearen kapsulekin ere iaioa naiz. Azetatua landuz ere sorkuntza batzuk eginak ditut, edo larruarekin ere aritzen naiz pultserak, lepokoak, eraztunak eta giltzariak egiten. Bisuteria da gehien egiten dudana.

2.- Noiz hasi zinen?
Orain dela bi urte ikastaro batean eman nuen izena. Bertan, eskulanak egiten genituen. Gutxikagutxika teknikak ikasten hasi nintzen eta gustua hartu nion bisuteria lantzeari. Berehala ikusi nuen sorkuntza politak egiten nituela. Krisketak lehenbizi eta gainerakoak gero etorri ziren. Hainbat apaingarri eginak nituean etorri zitzaidan burura saldu ere egiten ahal nituela.

3.- Bakarrik aritzen zara edo baduzu laguntzarik?
Azoketara joaten naizenean batzuetan lagunak edo senitarteak etortzen dira nirekin laguntzera eta bide batez eguna pasatzera. Baina produktuak neronek baino ez ditut egiten.

4.- Ofizioz baino, afizioz aritzen zara?
Bai, noski. Nik berez fabrika batean egiten dut lan, astelehenetik ostiralera. Baina ahal dudanetan bitxigintzan aritzen naiz eta asteburuko denbora aprobetxatzen dut

azoketan saldu ahal izateko zein bitxi gehiago sortzeko. Denbora asko behar duen afizioa izanagatik ere, pozik egiten dudana da.

5.- Zer da gehien saltzen duzuna?
Batez ere eskumuturrekoak gustatzen zaizkio jendeari. Hasi nintzenetik gehien saltzen dena da. Baina krisketak ere asko saltzen ditut, oso modan jarri diren bitxiak baitira, arropari kolorea emateko erabiltzen du erosleak.

6.- Oso landuak eta detaile askorekin egiten dituzu krisketak. Lan handia du halako bat sortzeak?
Era askotakoak egiten ditut. Batzuk simpleagoak eta beste batzuk, bai, oso landuak. Ordu erdian egin ditzaket simpleenak, baina, beste askori ordu eta erdi ere eskaintzen diet. Oso apaingarri txikiak dira eta abildadea eskatzen dute.

7.- Irurtzango eta Arakilgo armarrarekin ere krisketa berezia egiten duzu.
Jendeari asko gustatu zaio gainera! Askok esan didate detaile polita dela. Neu arakildarra izanda Bi Ahizpak irudikatzen duen armarraria islatu nahi izan dut apaingarrian. Arakilgoak eta Irurtzangoak antza handia dute elkarren artean eta bietarako balio dezake.

8.- Zein azokatan hartu duzu parte?
Orain arte ez naiz askotan izan, duela bi urte baino ez nabielako postuarekin. Bi urteotako maia-

tzean izan naiz Elizondon adibidez. Irurtzunen San Martin azokan baino ez. Gipuzkoara ere iritsi naiz eta Iruñerrian Mutiloako euskararen egunean jarri ditut nire sorkuntzak begi bistan.

9.- Zer iruditzen zaizu zenbat azokatan ordaindu behar izatea postua jartzeagatik?
Niri gutxitan tokatu zait ordaintzea. Ez zait ongi iruditzen, baina batzuetan ez dago ia beste aukerarik. Esan nahi dut, nolabait arautua dagoen gunean sartzeko, batzuk kanpoan gelditzen dira eta soilik batzuk har dezakete parte. Beste askotan, azoka bat jartzeak antolatzaileari ere dirua kostatzen ahal zaio eta hori guztien artean ordaintzea da xedea.

10.- Bi urteotan krisia antzeman da salmentetan?
Dударik gabe, bai. Hasi nintzenetik gaur artesalmentan asko nabaritu dut. Jendea orain lehen baino beldurtuago dago, are gehiago krisitik irteteko zantzurik sumatzen ez den honetan eta jendeak aurreztera jotzen du. Baina ni lasai nago, kontuan hartuta ez naizela saltzen dudanetik bizi.

11.- Jendeak baloratzen du eskuz egindako lana?
Ez. Gehienetan garestia iruditzen zaie azoketan saltzen ditugun artikuluen prezioa. Badakienak zer den eskuz sortzea, eskuz egitea, badaki baloratzen eta prezioa egokia dela ikusten du. Baina, prezioarri reparatuta bakarrik baloratzen dute askok, kontuan hartu gabe hori egiteak atzean duen lana.